



ONDARROAKO HISTORIA MARRAZKIETAN

Jose Luis Burgoa

ONDARROAKO HISTORIA MARRAZKIETAN

Jose Luis Burgoa



ONDARROAKO
HISTORIA ZALEAK



ONDARROAKO
HISTORIA
MARRAZKIETAN

Jose Luis Burgoa



ARGITARATZAILEA:

ONDARROAKO HISTORIA ZALEAK

Txomin Agirre Udal Liburutegia • 48700 ONDARROA

Tf.: 94 683 33 43

LEGE GORDAILUA: **BI-1-1.547-82**

MARRAZKIAK: **Jose Luis Burgoa**

TESTUAK ETA MAKETAZIOA:

ONDARROAKO HISTORIA ZALEAK

INPRIMATEGIA: **Ona Tailerrak. Iruñea.**


TIRADA: **1000 ale**

2002ko irailean argitaratua • Ondarroako Hiribilduaren 675. urteurrenean

Argitarapen honek erakunde hauen diru laguntza eta babesa jaso du



**Ondarroako
Udala**



**Bizkaiko
Foru
Aldundia**



Irakurle,

Eskuetan daukazun liburuxka honetan eskaintzen dizkizugun irudi-marrazkiak ezagunak dituzu beharbada. Agian, 2002. urte honen hasieran, herritarron gozamenerako, Udal Erakustokian ikusgai jarri genuen erakusketa ikusi zuten 2.698 herritarretariko bat zaitugu zu zeu ere.

Erakusketa hura ikustera hurbildu zineten herritar guztioi gure esker ona agertu beharrean gaude. Hain harrera ona eskainiaz gain, zuon ohar eta ekarpenak ere ugariak izan ziren.

Liburu hau, izan ere, irudi egilearen eta herritarron arteko elkarlanaren fruitua da. Herritarrok eginiko ekarpenak eskuetan dituzun irudi-marrazki hauetan plasmatu baititu egileak berak. Erakusketara hurbildu zineten hainbatek galdetu zenuten ea salgai ez ote zeuden irudi-marrazki haiek. Eta geroztik ere hainbat herritar hurbildu zaigu gure asmoez galdezka. 2002. urte honetan, hain zuzen, Ondarroak bere hiri-agiria eskuratu zuen 675. urteurrena ospatzen dugu. Herriak prestatu duen egitarau zabalaren barruan, halaber, OHZ taldea ere gure ekarpena egitera behartuta gaude nahitaez. Eta, besteak beste, aipaturiko irudi-marrazkiak liburu baten argitaratzea deliberatu dugu.

Irudi-marrazkien azalpen laburraz gain, Ondarroako historiaren zenbait zertzelada ere aurkituko duzu liburu honetan. Gure herriaren historiarekiko zaletasuna bultzatzea baita gure asmoa.

Ondarroako Historia Zaleak

2002 KO IRAILA



Aurkezpena

Ondarroak hiribildu nortasuna eman zion hiri-agiria jaso zuen egunetik, gure herria laztantzen duen Artibai ibaiak ere ur asko isuri du itsasora bere hondar ahoan zehar. 675 urte hauetan, ahatik, gure herri honen Historia egin eta landu duten gertaerak ere jazo dira, etenik gabeko kate luzearen katebegi gisa. Historia horretan ondarrutarron oroimenean betirako gorde, eta oraingo eta geroko belaunaldiei ere jakinarazi behar genituzkeen une gogoangarriak ere gertatu dira, ondarrutarron izaera kementsu eta ekintzailea mantentzeko eta indartzeko.

Ez da, ez, lan erraza, Ondarroako herriak ia zazpi mendetan egin eta antzeztu duen bere historia kontatzea eta liburu baten laburbiltzea. Hala ere, iritsi da, nire ustez, gure historiaren ateak ireki, eta herriko gertaera historikoetan murgiltzeko garaia. Izan dira, egia esan, gure aurretik ere arlo honetan lan eskerga egin duten ondarrutarrak. Hauen lanari esker, nire irudi-marrazki hauek egin ahal izan ditut. Ahalik eta herritar gehien gure herriko historian murgilaraztea, hauxe da gure herriko historia irudi-marrazkietan agertzera bultzatu nauen arrazoi nagusia. Bidenabar, herritarron kolaborazioa ere bultzatuz. Herriko historia herritar guztiona baita, inolako bereizketarik gabe. Gure herriko historia irudi-marrazkietan agertzerakoan, ohartzen naiz hutsune

eta alboratzeak gertatu direla. Baina nahi gabekoak, dudarik gabe. Are, ziur nago izanen dela norbait nire hutsunak eta errakuntzak zuzentzen lagunduko didana. Abegi onez hartuko dut edozein ohar edo argibide. Liburu honetan agertzen diren irudi-marrazkiak, izan ere, etengabeko bilakaera prozesu bati irekita daude. Herriko gertaera eta datu historikoetan oinarrituta egon arren, hein handi batean nire irudimenaren fruitua ere baitira, nabari denez. Bestalde, irudi-marrazki hauekin ez da amaitzen gure herriko historia, gure herria bizirik baitago eta egunegun herritar denok osotzen ari gara Ondarroako herriaren historia. Legezkoa denez, begira iezaiogun gure herriko iraganari, ez iraganeko garaipen eta lorpenetan harrotzeko eta loak hartzeko, gure herriaren geroa ere eraikitzen jarraitzeko indarberritu gaitzen baino. Ez dezagun ahaztu herri baten nortasuna eta izaera, izan ere, herritarron portaeran eta lanean oinarritzen direla. Esaera batek dioenez, "Ezagutu ezazu zure herria, eta zeu ezagutuko zara. Maite ezazu zure herria eta Jaungoikoa maiteko duzu".

Jose Luis Burgoa

2002 KO IRAILA

ONDARROAREN SORRERA

Bizkaiko lehen herri multzoak elizateak ("Anteiglesias") izan ziren. XIII-XIV. gizaldian, hala ere, Bizkaiko Jaunek eurek "villa" edo hiribilduak sortu zituzten, aipaturiko elizate horien mugetan zeuden herritar multzo batzuei foru bereziak emanaz.

Ondarroari ere bere txanda iritsi zitzaion 1327ko irailaren 28an, Maria Diaz de Haro Bizkaiko Andereak emaniko Foruaren bidez. Lekeitiori baino bi urte beranduago, Markinari baino 28 urte lehenago.

Fetxa aipagarri horren aurretik ere bizi zen jendea gero Ondarroa delako lur-eremu honetan, oraindik Berriaturen eskumenean egon arren. Hiribildu izendatzeko agirian bertan zera esaten baita hitzez-hitz: "... e yo, doña Maria, otorgo a estos pobladores de Ondarroa estos fueros que son aquí escriptos".

Aipagarriak benetan Doña Maria honek, "Andere Ona" legez ezagutuak, Ondarroako hiribilduari eman zizkion lurralde eta mesedeak ¹.

Azpimarra dezagun Ondarroari emaniko foru honetan agertzen den berezitasuna. Beste kasuetan, hiribildua inguratzen zuen harresi barruko biztanleek soilik gozatzen zuten sortze foruan emaniko eskubideetaz. Ondarroari dagokionez, ostera, Amallo eta Gorozika auzoko baserriarrei ere ematen zaie Ondarroako hiritar izateko eskubidea. Ondarroako hiribilduaren mugetan, besteak beste, Amallogana, Arnoate eta Akilla aipatzen ziren alde batetik, eta Ateguren, "el pedragal de Txopite" eta Sagustango portua bestetik.

Ondarroako berezitasun hau, hain zuzen, urteak aurrera joan ala, Berriatua eta Ondarroa bi herrien arteko eztabaida eta auzien iturburu bilakatu zen. Ondarrutarrek uste zuten Ondarroarena zela itsasoak marea gorakoan hartzen zuen lurralde guztia. Berriatuarrek, ostera, marea behekoan, soilik.

1. IRUDIA. 1346. urte aldera.

Irudi honetan Ondarroako herria marrazten zaigu, 1346 aldera, bere hiribildu izaera eta duintasuna lortu -1327an- eta urte gutxitara. Itsas marea goian zegoenean Ondarroak eskaintzen zuen irudia dugu berau. Nabari denez, marea behean zegoenean eskaintzen zuenaz erabat ezberdina, hondarra besterik ez baitzen ageri ibaiaren alde bietan, 11. irudian nabarmentzen zaigun bezalaxe. Garai hartan sortu ziren "villa" edo hiribildu guztiak bezalaxe, Ondarroa ere harresiz inguraturik. Artibai hibaia igaro eta Gipuzkoa aldetik herrian sartzeko zubia. Egurrezkoa. Zabalik agertzen da, ibaian gora zihoazen txalupei bidea libre uzteko. Andra Maria elizaren erakuntza hasi gabe oraindik. Urrunean, Antiguako eliza ikusten da. Ondarroako lehen eliza, eta parrokia ere, dirudienez. Besteak beste, ondarrutarren arrantzale izaera nabarmentzen zaigu irudi honetan.

Ama-alaben arteko auzi hauek luzaro iraun zuten. XVI. gizaldian ere hainbat batzar egin ziren herri bietako ordezkarien artean, gizon onak izendatzera ere iritsi zelarik.

Harrigarri badirudi ere, ondarrutarren lotura itsasoarekin aipatu ere ez da egiten sorrerako Foru Agirian. Baina laster uxatuko dugu harridura, Maria Diaz de Haro andereak Ondarroari emaniko Forua bera, Logroñoko Foruaren kopia hutsa besterik ez dela jakitean.

Oso bestelakoa dugu Maria Diaz de Haro II.ak (sortzailearen hiloba) eta Juan Nuñez senarrak, Bizkaiko Jaun-Andereak, Ondarroari eman zioten Forua (Bermio, 1335-XI-10). Ondarroarako berariaz edo exprofeso egina. Berton, hitz esanguratsu hauek irakur ditzakegu: "*Porque vos el conçejo e los ombres vuenos de Ondarroa, nuestros basallos, nos enbiasteis mostrar en cómo erades muy pobres por muchos males e daños e pérdidas que aviades tomado, así en la mar como en la tierra, señaladamente del la entrada, qu'el rey fiso en Viscaya*"².

Agiri honetan aipatzen diren kalte horiek Alfontso XI.ak -Gaztelako Erregeak- egin zituen sarraski eta basatikeriak dira, Bizkaira sartu zenean. Ondarroari ere egokitu zitzaion berea, itsasoko zein lehorreko ondasunetan. Nabaria da, beraz, Ondarroako herritarrek XIV. gizaldian itsasoarekin zeukaten lotura.

Egurrezko Zubi Zaharraren lehen aipamena 1346koa da. Aguirre Gandariasek aurkitutako agiri batean azaltzen denez, Maria Díaz II.ak masta zeukaten txalupei zerga bat kobratzeko baimena eman zion Ondarroari, igarotzen ziren bakoitzean zubia igo eta jeitsi behar izaten baitzen ("*alzar la puerta de la dicha puente*" esaten da agirian)³.

1. Ikus, besteak beste, RUBIO PEREZ, L.M.: *Ondarroa, Apuntes Históricos de una villa marinera durante la Edad Moderna, 1986*, 14-17. orr.

2. AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Hacia la edición crítica de la carta fundacional de Ondárroa: la carta de merced de 1335", *Ondarroa 1988*, 9. or.

3. AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Hacia la edición crítica de la carta fundacional de Ondárroa: la carta de merced de 1335", *Ondarroa 1988*, 9. or.





UDAL KARGUEN HAUTAKETA ETA ANTIGUAKO ELIZA

Rubio Perezen esanetan, jada XII. menderako Ondarroa izango zen herrian jendea bizi zen. Hala ere, 1327. urteko irailaren 28an lortu zuen Ondarroak hiribilduaren kategoria, Maria Diaz de Haroren eskutik -Bizkaiko Anderea-. Sorlege honen bidez Ondarroa Berriatuako udalerritik bereiztu zen, eta ordundik aurrera, Bizkaiko Jaurreriaren organigrama orokorraren menpe jarraitu bazuen ere -korrejidorearen bidez-, bere kabuz gobernatzeko eskubidea lortu zuen, eta udal karguak izendatzeko.

Hasiera batean - XIV. eta XV. mendeetan- Ondarroa Kontzeju Irekiaren bidez gobernatzen zen, eta gizonezko guztiek izan zuten Kontzeju Irekian parte hartzeko aukera eta eskubidea: “... *el gobierno de la villa se realiza mediante el concejo abierto de vecinos que se reune a principios de año en la plaza de la iglesia, aprovechando la paralización obligada por la Iglesia durante las fiestas navideñas de las faenas de la mar*”⁽²⁾.

XVI. mendetik aurrera, Kontzeju Irekiaren ordez, Errejimenduaren sistema nagusitzen hasi zen, biztanlegoaren partehartzeari mugak ezarriz. 1593an, Klemente VII. Aita Santuak emandako bula batek, jai egunetan arrantzatzeko baimena ematen zien arrantzaleei, eta ordundik aurrera arrantzaleek gabonetako etenaldia egin beharrik ez zeukatenez, itsasora irteten zuten udal berria izendatzen zen sasoiaren. Hemendik aurrera arrantzaleak udal gobernutik zeharo baztertuta gelditu ziren. Errejimenduak, funtsean, gutxi batzuen eskuetan uzten zuen herriko gobernu -txakoli ekoizleen eskuetan, alegia⁽³⁾-, eta teoriarik alkatea eta bi errejidoreak urtero berriztatu behar baziren baziren ere, praktikan kargu hauek zenbait familia boteretsuk monopolizatu zuten, urteetan zehar txandaka. 1766tik aurrera -urte hartan gertaturiko matxinadaren eraginez, batez ere- Carlos III.ak “Diputados del Comun” eta “Sindico Personero del Comun” deituriko karguak gehitu zituen udaletara,

2. IRUDIA. Ondarroa, 1390. urte aldera.

Antiguako elizaren aterpean Ondarroako biztanleak udal kargu berriak hautatzen. Hala ere, hautestontzirik ez zen erabiltzen, hautaketak aho-biziz ez zirenean pitxer bat erabiltzen zelarik botoak jasotzeko. Normalean klergoaren presentziarik ez zen onartzen hautaketetan. Antiguako eliza, Ondarroako lehen eliza da. Baina eliza ez zen adreiluzkoa, eta kanpai baten ordez bi zeuden, beste leku batean kokatuta⁽¹⁾. Atzekaldean eskubira, Akilako tontorra edurrez estalita, ia neguro egoten zen bezalaxe. Bertan zegoen Ondarroako hiribilduaren mugetariko bat. Ondarroan gaudelaren ezaugarri ia bakarra, Ezkilantxarri haitza dakusagu irudiaren erdi alde-ra.

hain zuzen ere, auzokide-hautagaien⁽⁴⁾ sistemak baztertzen zuen biztanleen esparruak bere ordezkartza izan zezan.

Udal karguak izendatzeko orduan erabiltzen zen sistemari dagokionez, azarea eta hautaketa elkarganaten zituzten ereduak erabiltzen zirela aipatu behar, Euskal Herriko hainbat udalerrri eta erakundeetan bezala. Harrigarria badirudi ere, azareak bere eginkizuna jokatzen zuen, auzokide-hautagai guztien izenak txarteletan idatzita pitxer batean sartu, eta ume batek ateratako txartelek adierazten zutelako zeintzuk ziren hurrengo urterako udal karguen hautaleak. Errejimenduaren funtzionamenduan, alkate kargua zen nagusia, alkatea izateaz gain, lehen instantziako epaile lanak ere betetzen zituelako, XIX. mendeko erdi aldera arte. Gernikako Batzarre Nagusietarako ordezkariak ere udal mailan izendatzen zirela kontuan hartzen badugu, udalerrri mailan gordetzen zen boterearen tamaina, ez zela txantxetan ibiltzekoa ohartuko gara.

XIX. mendetik aurrera hedatu zen eredu konstituzionalak partaidetza politikorako zenbait oztopoak ezabatu zituen arren, sufragio murriztua mantendu zuen. Udala hautatzeko sistemak, ez zuen aldaketa handirik ezagutu. Errejidore eta sindikoen ordez, zinegotziak aukeratzen ziren. Biztanle kopuruak gora egin ahala, udal karguen kopurua ere handitzen joan zen, herri gobernurako betebeharren areagotzearekin batera.

Antiguako ermitari buruz zera esan dezakegu: Ondarroako lehen eliza izan zela, eta Aita Lizarralderen ustez itsas-ertzean jaso zen lehen eliza izan daitekeela, eta behar bada, gizaldi batzuetan bakarra. Imajina XIII-XIV gizaldietakoa omen da⁽⁵⁾. Eraikin hau, ermita bezala sortu zen, baina XIV. mendeko konponketak zirela medio, eliza kategoria irabazi zuen. Udal kargudunen izendatzea zuhaitz baten azpian burutzen zen.

1. ARTETA: “Antiguako Eleiza”, *Ondarroa 1986*, 69. or.

2. RUBIO PEREZ, Laureano: *Ondarroa. Apuntes históricos de una villa marinera durante la Edad Moderna*, 25 or.

3. RUBIO PEREZ, Laureano: Op cit., 26 or.

4. Auzokide-hautagaiak udal karguen hautaketan parte hartzeko eskubidea zutenak ziren. Eskubide hau 25 urtetik gorako gizonezkoek gozatzen zuten. Denborarekin beste baldintza batzuk gehituko dira auzokide-hautagai izateko: jabetza gutxiengo bat edukitzea Ondarroan, eta odol garbitasuna frogatuta edukitzea. Geroago gaztelaraz idazten eta irakurtzen jakitearena. Elizgizonak, militarrek eta lege gizonak ere hautaketa prozesutik baztertuta zeuden.

5. ARTETA: “Antiguako Eleiza”, *Ondarroa 1986*, 69-71 orr.





ARTIBAI IBAIA

NABIGAGARRI EGITEKO LANAK

Garai hartan, Zubi Zahar azpitik igarotzen zen ibaia, mantso eta noraezean itsasoratzen zen hondar artean. Beti ere ugaroi eta sakonkatsun txikiak. Itsasorako ibilbidea bera ere sarritan aldatzen zen. Batzutan, ibaiak berak zekartzan uholdeen ondorioz. Itsasoko olatu eta denboraleen eraginez gehienetan. Itsas amorratuaren olatuak, alegia, ibaian gora inolako trabari gabe sartzen ziren eta kupida gabe astintzen inguruak, 11. irudian agertzen den legez.

Ondarroako itsasadarraren egoera honek XIX. gizaldira arte iraun zuen. Itsasotik itzultzerakoan, arrantzaleak sarri txalopetatik jeitsi behar izaten ziren, txalupek ondoa jotzen zutelako. XIX. gizaldian, azken aldera, hain zuzen, Bilboko kazetari batek honela deskribatzen zuen berak Ondarroan ikusi zuena: "... *los vemos, al volver de sus rudas tareas, bañados de sudor, tener que arrojar al agua para empujar sus esquifes o barcas, expuestos a contraer enfermedades mortales, y teniendo que salir en el invierno a las diez de la noche, pasando las crudas noches en el mar, para compaginar las horas de salida con las de alta marea...*" ⁽¹⁾.

"Muchas veces hemos visto tener que aguardar tres horas a las barcas cargadas de pesca, para evitar peligrosos accidentes con perjuicio de esa delicada mercancía..." ⁽²⁾.

Beraz, ez da batere harritzekoa, ondarrutar arrantzaleak eta Ondarroako herri osoa itsasadar hori konpontzeko lanetan buru belarri murgilduta ikustea. Hala ere, egitasmo hauek XIX. gizaldira arte itxaro beharko zuten. Hain zuzen, "Lesteko moila" egin arte. Herrilan hauek badute euren historia:

3. IRUDIA. Ondarroa, XV. mendean, 1446. urte aldera.

Andra Mari Eliza eraikiteko lanak hasi gabe ikusten dira oraindik, baina autore batzuen esanetan (Irigoyen, batez ere) oinarriak egiten hasiak ordurako. Hiribildua babesten zuen harresia bere osotasunean agertzen zaigu. Harresi honek bost ate zeuzkan. Irudian ikusten duguna ekialdeko hondartzara ematen zuena da. Irudian agertzen den moduan, marea behean zegoenean, itsasoko ura barik hondarra besterik ez zen bistaratzen inguruetan. Arlanpa beharrik ere ez zeukaten arrantzaleek. Marea behekoan, ontziak hondar gainean pausatzen ziren besterik gabe. Hain hondar asko pilatzen zen inguruetan, non, gaur egun Ondarroako kaia bera kokatzen den gunea "Ondarroako hondartza" izenez ezagutzen zen. Are gehiago, marea behean zegoenean, hibaia barrena nabigatzea ere ia ezinezkoa bilakatzen zitzairen arrantzaleei.

1862. urtean Amado Lazaro ingeniariak prestatutako egitasmoaren arabera, olatuak geldiarazteko moila berria eraikitzeari ekin zitzaion Harbideko puntatik hasita. (Gaur Harbide Pasialekuko Behatokiaren inguruan). Hala ere, 1864ko azaroaren 14-16an Kantauri itsasoan sortu zen ekaitz bortitzak, amaitu baino lehen erabat suntsituta utzi zuen 150 metroko luzera eduki behar zuen moila hura.

Ondarrutarrek ez zuten amore eman. 1873. urtean, Sabino Goikoetxea injineruak proiektu berri bat egin zuen. Moila berri honek 212 metroko luzera edukiko zuen, eta gaur egun hondartzako moila dagoen toki berean kokatuko zen, antzeko norabidea hartuz ⁽³⁾. Gaur eguneko hondartzako moilaren aurretikoa, alegia. Proiektu hau, hala ere, ezin izan zuten berehala gauzatu, II. Karlistaldia zela eta (1872-1876). 1878. urtean Ondarroako herriak gogotik heldu zion proiektuari. Udala eta Santa Klara kofradia, Baskaran eta Basterra notarioen aurrean sinatutako agiri publikoan, moila berri honen kostu osoari - 513.109 erreale, orotara - bion artean erantzuteko konpromezua hartu zuten. Bakoitzak 25.000 erreale jarriko zituen urtero ⁽⁴⁾. Moila berria hau 1880. urtean amaitu zen. Ordainketa, oster, 1893an bukatu zen, hasierako kosto hura 693.000 errealerari iritsi zelarik ⁽⁵⁾.

Moila honekin ez ziren bideratu itsasadarreko arazo guztiak. Ezta gutxiago ere. Batzuek herrilan haien porrotaz ere mintzatu ziren. Artibai hibaia kanalizatzearen premia nabaritu zen (ikus 11. irudiaren azalpena). Egia esan, "Lesteko moila" honi (honela deitzen zioten ondarrutarrek) konponketak, baita aldaketak ere, egin behar izan zitzaizkion hurrengo urteetan. Baina inola ezin uka Ondarroako gaur kaiaren aurrepausu garrantzitsua izan zela "Lesteko moila" hura.

1. *El Noticiero Bilbaino*, 1893-VIII-17, "El puerto de Ondarroa" artikulua,

2. *El Noticiero Bilbaino*, 1893-VIII-25, "La expansión popular en Ondarroa" artikulua.

3. GOIKOETXEA, Sabino: "Puerto de Ondarroa. Proyecto de un muelle desvia-olas. Memoria descriptiva" (Ondarroako Udal Artxiboan, 4C/C003, 4. dok.).

4. Ondarroako Udal Artxiboan, 4C/C003, 5. dok.

5. ITURRIZA, Blas: *Oroitzapenen eskuizkribua* (1883-1896), 348-350 eta 330-331 orr. Argitaratugabea.





SUTE ETA IZURRITEAK

4. IRUDIA. Ondarroa 1473an edo 1462an.

Antiguako tontorrean, Antiguako eliza. Irudian islatzen ez bada ere, ordurako Andra Mari elizaren oinarriak egiten hasiak ziren. Herri osoa sutan. 1473. urtean, hain zuzen, sute bortitz batek Ondarroako etxe guztiak erre zituen. Zeharo erraustuta utzi zuen Ondarroako hiribildua. Eta kanpoko laguntzaren premian, herria berreraikitzeke. Autore batzuen esanetan, sutea 1462. urtean gertatu zen. Baina, Enrike IV.a zeritzon erregeak, Ondarroa berreraikitzeke eskaini zituen mesede berriak biltzen dituen agiria, 1473ko maiatzaren 11koa da, "... para ayuda de reparar e tornar a facer esta dicha villa é las casas d'ella, que agora se quemó e quedó yerma de todo punto" ⁽¹⁾. Letra etzanean agertzen den "agora" horrek, sutea izan zenezetik ez zela denbora asko pasatu adierazi nahi dezake. Gure artean ez da falta suten baten ordeztu bi gertatu zirela uste duenik, 1462an eta 1473an.

Goian aipatutako sute honen antzeko beste bat ere jasan behar izan zuen Ondarroako hiribilduak. Horien artean 1746 urtean jasan zuena ⁽²⁾. Baina, askoz latzagoa izan zen 1794ko abuztuaren 30ekoa, Frantziako Konbentzioko gudarostea Ondarroaz jabetu eta alde egin baino lehen sua eman zionean. Gertaera honi dagokion irudia ere egin digu Jose Luis Burgoak (ikus 12. irudia). Berton aurkituko duzu dagokion azalpena.

Nola ahaztu, bestalde, XIX. gizaldiko gerrak? Halaber, bete betean harrapatu zuten Ondarroako herria. Napoleon garaiko frantsesen kontrakoak (1812-14) lehenik, eta bi Karlistaldietako gerrak geroago. Karlistaldietan, armada liberalak egin zituen bonbardaketan ondorioz hainbat etxe gertatu ziren kaltetuta. Baita erreta ere ⁽³⁾.

Ezbeharren atal honetan ezin ahaztu Ondarroako herriak sufritutako izurriteak. Sarritan gertatuz gainera, herrian eginiko triskantzak ere ez ziren makalak izaten. Ziur aski latzena 1598koa izan zen, 1541ean zituen 182 "su"etatik ⁽⁴⁾, 1630ean 49 baino ez ziren gelditzen eta: *"Los 49 fuegos existentes en 1630 son buena muestra de los estragos de la peste de 1597 introducida vía marítima en plena coyuntura económica recesiva"* ⁽⁵⁾. Beraz, esan dezakegu, 4 familiarik 3 desagertu zirela, hilda edo alde eginda. Litekeena da, baita, suak laurden batera gutxitu arren, populazioa ez jeitsi izana tamaina horretan, peste izurritetik at mantendutako auzoetan bilduz.

Izurriterik ezagunenak, hala ere, XIX. mendekoak ditugu. 1855. urtean, esateko, "cólera morbo asiatica" sartu zen. Garai hartan, 2.500 biztanle zeuzkan Ondarroak. Urtean 30 bat lagun hiltzen ziren. 1855. urtean, osteran, 67 hil ziren abuztuan, eta beste 45 irailean. 1855. urtean kolera izurriteak 156 adineko eta 48 haur hildako utzi zituen herrian, guztira 204 pertsona, hau da 13 pertsona bakoitzeko bat. Herriko osagile bat ere hil zen. Eta beste, Fermin Ozamiz, gau eta egun lanean jardutera behartuta aurkitu zen. Herrian zegoen zirujanoa bera ere osagileari laguntzera behartu zuten herriko agintariek.

Izua hedatu zen herritarren artean. Hain ze, hildakoak ere isilean eramaten zituztela kanposantura. Eta hainbat familik ere herritik alde egin zuela. Goseari ere aurre egin behar. Arrantzaten zuten arraina ezin baitzuten saldu, kanpora bialtzeko aukerarik ez baitzegoen izurritea zela-eta. Eta udala bera ere dirurik gabe!

Hala ta guztiz ere, garai hartan alkate zen Domingo Lekue eta herriko beste agintariek ez zuten hutsik egin. Izurritea bera bilakatu zen udal batzarretako gai ia bakarra. Horrela adierazten dute Ondarroako udalak 1855ko abuztuaren 13an eta 22an, eta irailaren 3an, 20an eta 26ean eginiko batzarrak. Neurri zehatzak hartu zituzten. Ahal zen tokitik dirua lortu eta janariak banatu zituzten herritarren artean. Eta herriko sarreretan ere zaintzaileak ipini, iñori sartzen ez uzteko. Itsasoz ere inor sartu ez zedin, zaintzaile bat ipinita zeukaten hibaian bertan, Santa Maria elizaren aurrean. Zaintzaile hauek gau eta egun txandatzan ziren. Kaleetan ere alkitrana eta ota burdikadak ere erre ziran... Eta, nola ez, izurrite denboran, Antiguako Amari eta San Rokeri ere bederatziretan bana egin zitzairen. Irailaren azken aldera, izurriteak hobon egiterakoan, Antiguako Amaren irudia bera parrokiara jeitsi, eta kalerik kale ere pasiatu zuten esker onez.

1867an 35 herritar hil ziren, tifus izurrite baten ondorioz ⁽⁶⁾, eta 1868an, difteria izan zen beste 122 herritarren heriotzaren eragilea. 1885ean nafarrerria -edo baztanga- izurrite bat zabaldu zen, eta Ondarroa ez zen kanpo gelditu. Lehen aipamena otsailaren 5ekoa da, eta heriotza kopurua goraka bazihoan ere, ekainarte ez zen txertorik jarri biztanlegoari. Oraingoan ere, zaintzaileak jarri ziren herriko sarreretan, lazareto antzeko bat Santa Klaran ⁽⁷⁾ eta fumigatzeko etxola bat Arrigorriin.

Ezbeharren atal hau amaitzeko azpimarra dezagun gure asabek aurrera egiteko erakutsi ziguten adorea eta kemena. Suteek kiskalita utzitako etxeak, eta herria bera ere berreraikitzeke nor izan ziren. Hainbat izurrite eta gosete gainditu zituzten. Hori bai, prezio garestia ordainduta.

1. AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "El pedido de Ondarroa durante el siglo XV", *Ondarroa 1989*, 41-44 orr.

2. Ikus OUOBAL (Ondarroako Udal Osoko Bileren Akta Liburua), 1746-III-27.

3. Ikus OUOBAL, 1876-I-20.

4. Antzinako Errejimenean, biztanlegoa "su"tan zenbatzen zen, ez pertsonatan. "Su" bat, bere inguruan bizi ziren pertsonak osatzen zuten, eta beraz, ez zen neurri zehatz bat. Hala ere, "su" bakoitzaren inguruan batazbeste 6-7 pertsona bizi zirela esan dezakegu.

5. RUBIO PEREZ, Laureano: Op. cit., 37 or.

6. ANDIA, Danel: "Hospitales de Ondarroa", *Ondarroa 1982*, 63. or.

7. "14 pesetas a Joaquín Garmendia, por la ocupación de 4 días que pasó a Santa Clara haciendo guardia a una joven que vino a esta villa como hija de la misma de Zaragoza, después de haberse declarado oficialmente en esa ciudad", ANDIA, Danel: "Hospitales de Ondarroa", *Ondarroa 1982*, 64. or.



J.L. Borgo

ANDRA MARI ELIZAREN ERAIKUNTZA ETA ITSAS-MERKATARITZA

Gaur egun Ondarroako parrokia moduan ezagutzen dugun Santa Maria elizari begiratuz, begi bistan nabarmentzen zaigu eliza hori bi fasetan eraiki zela. Oinarriak, batetik. Eta hauen gainean eraikitako eliza bera geroago.

Elizaren basamenduari dagokionez, badirudi haitz baten gainean jaso zituztela gaur egungo "korreta" azpian ikusten diren oinarri-orma sendoak eta arkudiak. Kare harriz egina. Eliza bera baino zabalagoa, eliza zeharkatzen duen "korreta" egiteko aukera emanaz.

"Korreta" honen inguru guztian harrizko eserlekuak ipini zituzten bere garaian. Eta geroztik herri-batzarrak egiteko lekutzat erabilia izan da askotan. Beste erabilera asko ere izan ditu: sareak eskegi lehortzeko, txalupak lotu, arraunak hormetan utzi; eta geroago, oraintsu arte, arrantzaleen bodegak. "Korreta" hau gure herrialdean bakarra dela esan behar dugu. Noiz hasi ote ziren oinarriak eraikitako lanak? Juan Irigoien idazleak eta garai batean Ondarroarekin harreman estuak zituenak diogunez, 1335. urte inguruan hasi ziren Andra Mari Elizaren oinarriak egiten, eta autore berdinarekin esanetan, elizaren ormen eraikuntza ez zen hasi 1475era arte. Eta datazio honen inguruan dagoen anabasa areagotzeko "... *en la sacristía existe un fuste liso, esbelto, con su capitel, exornado con motivos de tipo transitivo del románico al gótico (...) Este capitel y su fuste se pueden aproximar en fecha a aquella de la fundación de la villa*"⁽¹⁾.

Kanttoipean aurrez aurre ageri diren hormatzar horiei begiratuz, bati baino gehiagori burura etorri zaigu nola ausartu ote ziren gure asabak horrelako herrilan erraldoi baten murgiltzera.

Aski ezaguna da, eta goraldua ere, ondarrutarron arrantzale izaera. Baina Ondarroako herriak beste lotura bat ere izan du itsasoarekin. XIV-XV. gizaldietan, Ondarroako elizako oinarriak eraikitzen ari ziren garaian, itsas merkataritzan murgilduta zeuden Ondarroako biztanleak, itsas zabaleko merkataritzan, gainera.

XIV. mendean Ondarroako itsasontziek Ingalaterrarekin merkatal harreman zuzenak mantentzen zituzten. Ondarroako merkatarien ordezkariak, eurek, Bermio, Bilbo, Lekeitio eta Plentziakoekin batera, Ingalaterrako ordezkariak bildu ziren, eta itsas haietara joatea negoziatu zuten 1353. eta 1372. urteetan. Akordio hauen ondorioz, euskal merkatal itsa-

5. IRUDIA. Ondarroa, 1475. urte aldera.

Santa Maria elizako oinarrien eraikuntza nabaritzen zaigu irudi honetan. Esan bezala, aurreko irudietan agertu ez arren, ordurako badirudi oinarrien eraikuntza hasita zegoela, eta agian ormak ere egiten hasiak ziren. Alboan, herrira iristeko zubia. Egurrezkoa.

sontziek euren itsaso propio moduan zeharkatzen zituzten Bizkaiko Golkoa eta "Canal de la Mancha" bera ere, XIV. eta XV. gizaldietan. Esateko, Ondarroako "San Nikolas" txalupa gatza garraiatzen aurkitzen dugu 1375. urtean. Eta 1401. urtean "San Martin", hau ere Ondarroakoa, Londresko portutik irteten⁽²⁾.

Honez gain, Ondarroako txalupak Mediterraneo itsasoan barrena abiatzen ziren. Genovako portua zuten gogoko, gehien bat, merkatal gune garrantzitsuenetarikoa baitzen. XV. mendean, hain zuzen, Mediterraneoan ari ziren 9 itsastar eta merkataria entzutetsuen artean Rodrigo Romo ondarrutarra izendatzen da⁽³⁾. Pedro Urresti ondarrutarra, bere "La Trinidad" txalupan Genobatik Kadizeko portura telak garraiatzen aurkitzen dugu 1493. urtean⁽⁴⁾. Beste batzuk Turkiaraino iristen ziren, antza, "nik neuk bete neban (kargatu neban) Ondarroako "Lucia" txalupa Turkian" adierazten du garai hartako merkataria batek⁽⁵⁾.

Egia esan, kortsarioen garaia ere bazen. Kortsarioek, alegia, Erregearekin hitzartzen zuten "Patente de Corso" zeritzon kontratu baten arabera, Erregearekin gerran zeuden nazioetako itsasontziei eraso eta hauen edukiez jabetzeko eskubidea zeukaten. Ez ziren, beraz, piratak. Juan Perez de Likona, ondarrutarra hau ere, bere txaluparekin, "Jakobo Spatari siziliarraren bi txalupaz jabetu zan itsasoan, Napolesetik Zerdeña bitarteko ibileran. Olioia, ezti, gozaki eta narruz beteta eioazan txalupa biak"⁽⁶⁾. Hau, 1483. urtean gertatu zen.

Itsas merkataritzak ondasun ugari ekarri zion mende haietan Ondarroako herriari. Egia esan, ondasun haiek lortzeko, merkataria batzuen portaera ez zen batere txalogarria izan. XV. mendean, halaber, Genobako merkataluan esklabuak erosten agertzen dira merkataria euskaldun batzuk. Hauen artean, Pedro de Ondarroa zeritzona. 1457. urtean, bi aldiz, gainera⁽⁷⁾. Ondasun haietatik zati bat behintzat elizaren eraikuntzan jarri zutela esan dezakegu zalantzarik gabe. Kontzientzia txarra baretzeko, kasu batzutan. Eta gehienetan, kristau fedearen eraginez. Honetaz gogoratzekoa da 1477. urtean karabela armatu baten kasua. Karabela hura bizkaikoa zen. Mariñelen artean, besteak beste, 9 ondarrutar eta 11 lekeitiar. Ingalaterrako uretan zebilela, Eskoziako merkatalontzi bati eraso eta merkantzia osoa lapurtu zion. Argimutil (kandelabro) eder bat ere tartean. Merkantzia hura Ondarroara ekarri zuten. Eta argimutil hura Ondarroako elizan agertu zen⁽⁸⁾.

Izan ere merkataria izan ziren Ondarroako garai hartako "amerikanoak".

1. "Iglesia parroquial de Ondárroa", *Ondarroa 1982*, 9 or.

2. IRIONDO IBARLOZA Jose María: "Información histórica del puerto de Ondárroa", *Ondarroa 1992*, 56-58 or.

3. ONDARZUBI: "Ondarroako gauza arrigarriak", *Ondarroa 1998*, 10. or.

4. AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Las desventuras del marino Pedro de Urresti, un ondarrutarra a fines de la Edad Media", *Ondarroa 1993*, 69. or.

5. eta 6. ONDARZUBI: "Ondarroako gauza arrigarriak", *Ondarroa 1998*, 11. or.

7. PIÑEIRO, Manuel V.: "Cántabros y vascos en el mercado de esclavos", *Ondarroa 1990*, 34-35. or.

8. AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Incidente y proceso con el escocés Matusin, en Ondárroa (1480-1483) y Azpeitia (1484-1491)", *Ondarroa 1993*, 82-85 orr.



ANDRA MARI ELIZAREN ERAIKUNTZA

ETA EGURREZKO ZUBIA

Andra Maria elizaren oinarrien eraikuntzak eragin zituen gastu itzelak, elizaren eraiketa bera ere atzeratu egin zuen. Eta, 1473. urtean gertatu zen suteak ere zeharo ahulduta utzi zuen herriko ekonomia.

Eraikuntza lan hauek nekez burutu zirela ohartzeko, aski zaigu elizari berari begiratzeari. Begi bistan dago elizaren zati handi bat kare harriz egin zutela. Oinarriak egiteko erabili zuten materialea bera. Goiko aldea, ostera, hare harriz dago eraikia. Eliza beraren eraikuntza lanei dagokionez, bada data zehatz bat, 1480. urtea, alegia, elizarako sarrera nagusiaren goi aldean zizelatu, teoriarik behintzat gaur egungo udaletxe zaharrak ezkutatzeko diguna.

Data honen esangura aztertzerakoan, hala ere, adituak ez datoz bat. Iturrizaren ustez urte horretan eraiki zen eliza. F. Sesmarok, bide beretik jarraituz, elizari urte horretan eman zitzaioela teitatu zehazten digu. J. Irigoienek, ostera, uste du urte horretan itxi zela hasierako egitasmoa. Delmasek, horratik, 1480. urteko data hori alboratu eta 1462. urtea proposatzen digu, hau da, erreketak baino 11 urte lehenago.

Badirudi, eliza bera, kanpoaldea behintzat, bukatuta zegoela 1505. urtean. Hala ere, ezin dugu ahaztu dorrerik gabeko eliza dugula Ondarroakoa, nahiz eta 1776. urtean oraindik kanpai dorrea eraikitzeke asmotan ibili Ondarroako parrokoa bera.

Elizako barrua ezer egin gabe mantendu zen luzaroan. Elizako zutarrak eta hauen gaineko ganga edo bobedak, korua bera, erretabloak e.a. 1740. urte inguruan egin ziren ⁽¹⁾.

Egurrezko Zubi Zaharra. Ur handi eta itsaso zabaletako merkataritzan ibili arren, Artibai ibaian gora ere bazegoen zer garraiatu eta nora garraiatu. Lehen aipamena 1336. urtekoa dugu, ondarrutarrek zerga bat kobratu nahi izan ziotelako Amaloko ubidea erabiliz (“canal de Amallo”) moztutako egurra Artibaierantz bideratzen zuten lekeitiarrei. Auzia egon zen, eta epaia lekeitiarren aldekoa izan zen. Beraz, ondarrutarrek ez ezik, inguruko herrietakoek ere baliatzen ziren Artibai ibaiaren nabigagarritasunaz.

Txalupak ibaian gora eta behera ibiltzeko, erditik zabaltzen zen zubia eraiki zen. Egurrezkoa, jakina. Garai hartan Flandesko lurraldeetan eraikitzen zirenen estilokoa.

6. IRUDIA. Ondarroa, 1490. urte aldera.

Andra Mari eliza beraren eraikuntza hasten. Egurrezko zubia erditik zabalduz, altxatu egiten zen, ibaian gora Errenteri eta Berriatuko burdiñoletara minerala zeramaten txalupei igarotzen uzteko. Irudian, zubi honen alboan agertzen zaigun eraikin txikia ez da "Aite Pirare"ko baseliza, bidesaria kobratzeko kaseta baizik. Aittepirerako baseliza bera ere, egia esan, garai haietakoa dugu.

Egurrezko zubi honen lehen aipamena 1346. urtekoa da, Aguirre Gandarias aurkitutako agiriak frogatzen duenez, eta ez 1335ekoa, nahiz eta Gaiztarrok azken data hau eman ⁽²⁾. 1346ko abuztuaren 8an, hain zuzen, aurrerago ere aipatu ditugun Maria Diaz de Haro II. eta Juan Nuñez, Bizkaiko Jaun-andereak (Ikus 1. irudiaren azalpena) agiri bat sinatu zuten Dueñasen. Maria Diaz de Haro I.ak Ondarroari emaniko forua baieztatuz gain, beste zenbait mesede ere eman zieten ondarrutarrei.

Mesede hauen artean, egurrezko zubi hortatik igarotzen zirenei bidesaria kobratzeko eskubidea aipatzen da. Izan ere, zubitik igarotzen ziren abere zamarien jabeek, zein zubiaren azpitik ibaian gora jotzen zuten zamaontzien jabeek, euren bidesaria ordaintzera behartuta zeuden aurrerantzean. Artibai ibaian gora igarotzeko zubia irekitzeko eginbeharra ezarri zieten Ondarroako agintariei, baina diru baten truke ⁽³⁾.

Udalak berak enkantera ateratzen zuen bidesari hori kobratzeko eskubidea. Ondarroako udal artxihoan gordetzen den dirukontuen lehen liburuan, hain zuzen, 1616. urtean zubiaren enkantea eskuratu zuen Leandro herritarrek ordaintutako 32 errealek diru-sarrera agertzen da ⁽⁴⁾. M. CiriQuiain Gaiztarrok dioenez, herriko txalupa jabeek errealek bi ordaintzen zituzten bidaia bakoitzeko. Erreal bi terdi kanpokoek.

Henoa ikerlari arduratsuak, 1637. urte aldera Artibai ibaian barrena, Berriatu eta Markina aldera zeuden burdiñoletara mea garraiatzen zela idatzi zuen (burdinolen gaia 8. irudian erabiliko dugu). Berak zioenez, itsasoa legoa erdi barneratzen zen ibaian gora, eta deskarga-lekutzat erabiltzen zen harrizta bat aipatzen digu. Datu honek, itsasoaren urak pixkanaka-pixkanaka atzera egin dutela pentsarazten dio CiriQuiain Gaiztarroari. Autore berdinaren esanetan: “*Además del Pedregal, que era el punto de carga y descarga comercial, podíamos decir; había otros puntos de embarque en la ría de Ondárroa*” ⁽⁵⁾.

Ondarzubik, Artibai ibaiaren nabigagarritasunari datu gehiago eskaintzen dizkigu: “... *jakiña da, Berriatuko eleiza egiten ibili ziranean, egiturazko lan batzuetan erabili bearzan arria, errezago lantzeko nunbait, Oriotik ekarten zala ondar-arria. Eta ekarri be ez leorreko bideetatik, itxasoz baiño, itxas txalopetan. Eta txalopa orreik, ez arrisku barik, Artibai ibaian gora joaten zirala, an dagon tellerixa baserri inguru arte, eta andik idien indarrez erabilten ziran narraetan eroaten zirala euren lantokira, Berriatuara*” ⁽⁶⁾.

1. Jose Lorenzo Etxezabal parrokoak Ondarroako udalari eginiko gutuna (1776-VII-07). Ikus *Ondarroa 1990*, 43-44. or.

2. CIRIQUIAIN GAIZTARRO, Mariano: “Los Puertos Marítimos del País Vasco”, *Ondarroa 1992*, 27. or.

3. AGIRRE GANDARIAS, Sabino: “Edición crítica a la Carta Fundacional”, *Ondarroa 1988*, 8-9. or.

4. ONDARROAKO UDALA: *Libro de Cuentas, 1614-1633*, 19. or. (Ondarroako udal artxihoan, 4A-L/002).

5. CIRIQUIAIN GAIZTARRO, Mariano: “Los Puertos Marítimos del País Vasco”, *Ondarroa 1992*, 29. or.

6. ONDARZUBI: “Ondarroako gauza arrigarriak”, *Ondarroa 1998*, 13 or.



ANDRA MARI ELIZAREN ESTILOA

Santa Maria elizaren estiloa aztertzerakoan, gotiko berantiarra dela ikusten dugu, zera da, Errenazimentuaren atariko. Aldi bietako ezaugarriak dakusagu. Baina Bizkaian eman zen gotikotik oso gutxi nabaritzen da Ondarroako elizan. Beranduago etorri zen estiloaren ezaugarri gehiago ditu. Hortik "gotiko berantiarra" izena.

Kanpo aldetik, dagoen eta elizarik dekoratuena dela inongo dudarik ez dago, darman dekorazioa bakarra baita. Adibide lez, 60 inguru gorgola ditu, lora eta animala irrealen irudiak, pertsonai eta animala fantastikoen irudiak, ezin hobeki zizelatuta hormetatik agertzen direnak. Eliza guztia goikaldetik inguratzen duen balkoi eta baranda ederrak ere ezin albora utzi. Hauek ere bakarrak dira, beste inon ez da horrelakorik egin.

7. IRUDIA. Ondarroa, 1510. urte aldera .

Marea behean. Txalupak garbitzeko eta margozteko aprobetxatzen dute arrantzaleek. Andra Mari Eliza amaituta dago. Eraikuntza ederra. Behekaldean, arrantzaleek batelak amarrazten dituzte. Gaur egun sasoi haretako burdinezko biribilak bertan diraute.

Eta zelan ez, gure "kortxeleko mamuak" borgoindar estilo ederrez eginikoak: hauen naturaltasun eta edertasuna azalduz, detaile eta espresionismo handiz zizelatua. Ekialdeko aldean, altarako horman, kortejoko hamabi irudi ditugu, eta beste zortzi pinakuloen gainetan jarrita daude. Badirudi hauek barandaren inguru guztian zehar jartzeak zirela, eta gehiago ere egin eta jarri nahi zituztela.

Elizaren ezaugarri ez ohizkoei buruz aritzerakoan, Euskal Herrian era honetako eraikuntzetan beste inon ez ditugula aurkitzen esan behar: bere oinarri handiak eta arkupe bereziak; dekorazioan, estilo flamenko-borgoia du (Nafarroan bai, baina Bizkaian beste inon ez dagoena); eta azkenik, estilo horren eraginez dituen elementu dekoratibo bereziak: idibegia, pinakuloak, gargolak eta kortxeleko "mamuak".





BURDINOLAK

Ibaiari lotuta agertzen zaigu beste ekoizpen jarduera bat burdinolena da. Ibaian gora, 10 burdinola handi zeuden, eta beste 10 txikiak. Itsas-garraiolariek marearen gora-beherak erabiltzen zituzten mea garraiatzeko. Kontutan hartzekoa da, sasoi haietan mea lurrez garraiatzea oso neketsua eta garestia zela -bide eskasak, animalien indarra baino besterik ez...-, eta horren ondorioz ezinbestekoa bihurtzen zela, marearen indarra aprobetxatzea, mea ibaian gora zeuden burdinoletara garraiatzeko. Horregatik, Ondarroa bezala, ibai nabigagarri bat zeukaten herriak egoera hobean zeuden honelako jarduera ekonomikoak garatzeko orduan. Errenderi auzoaren izenak, burdinolen jarduera honekin zerikusi zuzena dauka, errenta ordaintze horrek arrantzarekin zerikusirik ez zuen eta.

Burdinolei buruzko lehen aipamena XVII. mendekoa da. Hauxe dio A. Henaok bere *Antigüedades de Cantabria* liburuan: “*A media legua de la villa está su reneria* (gaur eguneko Erretereria auzoa, alegia), *a donde sube la mar; y mucho más arriba por la ria, que baja por su puerto, un pedregal y descargadero* (Arantzibia dorrearen inguruan, seguras-

8. IRUDIA. Ondarroa, 1590. urte aldera (XVI. mendea)

Artibai ibaiaren eskuin aldeko ikuspegia: egurrezko zubia zabalik dago, Artibai hibaian gora burdinoletarantz mea zeramaten txalupei igarotzen uzteko. Marea goian dago. Zubiaren atzean, Andra Mariren eliza ikusten da, jada bukatuta, eta XIX. mendean itsatsi zioten udaletxerik gabe. Irudiaren eskubira, arrantzaleek bizkarrena daramatzate sareak, eskegi eta sikatzeko. Irudiaren ezker aldera, Santa Klara kofradiaren lehen eraikuntza.

ki), *donde cada año se desembarcan más de ochenta mil quintales de vena* (burdin minerala) *para la labor de diez herrerías mayores y otras tantas menores*"⁽¹⁾. Burdinola hauek Berriatua eta Markina tartean zeuden kokatuta, eta datu hauen arabera, Artibaiko bailarako burdinolek Bizkaia osoan ekoizten zen burdinaren % 10a ekoizten zutela esan dezakegu⁽²⁾.

1728. urteko agiri batean beste hau irakurtzen dugu: "... que fuera de dichas diez txalupas se hallaban en este Puerto quatro Navios de conducir Vena y dos Barkazas de transitar fierro, que se hallan arrimados en el Arenal y Juncal de esta Ria asta Primabera, los que les tripulan en el Verano y en su nabegación con las mismas gentes que arriba se expresa y ba Alistada"⁽³⁾. Badirudi XVIII. mendean zehar burdinolen jarduera mantendu ez ezik, indartu ere egin zela, 1757an udalak Domingo Garroren jaraunspenaren inguruan zeukan auziarekin jarraitzeko behar zuen diruaren bila, burdinolen jabeengana jo baitzuen mailegu eske⁽⁴⁾.

1. "Ondarroa vista por Ciriqiuain Gaiztarro", *Ondarroa 1992*, 28. or.

2. IRIONDO IBARLOZA Jose María: "Información histórica del puerto de Ondarroa", *Ondarroa 1992*, 56-58 or.

3. ZUBIKARAI, Augustin: "Lanchas y gentes de mar en 1728", *Ondarroa 1989*, 21. or.

4. ZUBIKARAI, Augustin: "Domingo Garro", *Ondarroa 1998*, 8 or.





BALEAREN ARRANTZA

9. IRUDIA. Ondarroa 1640. urte aldera

Sasoi haietan, baleak oraindik kostaldetik nahiko hurbil harrapatzen ziren. Atzean, Saturrarango hai-tzak -Ezkilantxarri-. Pixka bat eskubirago, Santa Klarako ermita nabaritzen da. Ermita honen lehen aipamena 1593koa bada ere ⁽¹⁾, badirudi bere eraikuntza askoz lehenagokoa dela. Ermita honen kokaguneak -talaiak-, itsas jarduerekin harreman zuzena zeukan, eta bere finantziazioak ere bai ⁽²⁾. Ermita hau gerra zibilean zuntsitu zuten, eta ondoren eraiki zen gaur egungoa, txikiagoa eta mendebalderantzago.

Balearen kostaldeko arrantza antzinako jarduera da ondarrutarren artean. Gure kofradian gai honi buruz dokumentu askorik ez aurkitu arren, ondarrutarren ekintzak inguruko herrietakoetan aipatzen dira; eta hiribilduaren harrizko ikurrean zizelkatuta daukagun balearen irudiak ere, nabarmen adierazten digu gure arbasoen eta balearen arteko lotura.

Negu aldera, sasoi zehatz batean, kostaldera tarteka agertzen zen bale honi deitura desberdinak eman izan zaizkio: "Glacialis" edo "Atlantikoa", "franca", "euskaldunen balea", "biscayensis"... Balenketak eguneroko arrantza baino arrisku eta ahalegin gehiago eskatzen zuen, baita jende askoren partaidetza ere. Horregatik, antolaketa berezi eta berria eratu beharra sortzen zen haren inguruan.

Lehenengo berrikuntza talai-gizona edo "talaxeroa" dugu. Herri bakoitzak itsas gaietan jakitun bat kontratatzen zuen, San Martinetatik Martxora bitartean edo, balearen aztarrenik zuenean herritarrei abisoa pasa ziezaien. Ondarroako talaian, Santa Klara ermita kokatzen zen, eta litekeena da, beste zenbait eginkizunetarako erabakita zegoen bezalaxe ⁽³⁾, kasu hauetan ere ermita zaintzen zuen serorak izatea talaiari lana betetzen zutenak. Balea begiztatu orduko, sua piztu eta kearen bidez edo ta kanpaien bidez zabaltzen zuen berria. Orduan, herriko arrantzale guztiak balearen bila itsasoratzen ziren.

Balea harrapatzeko ontziak bereziak ziren, azkarrak, balearengana lehendabizi heldu eta zauritzeko, aldameneko herritarrek ez baitziren urruti ibiliko. Txaloparen aurrean arpoilaria, atzean patroia eta erdian hiru tosta binako arraulariek, guztira zortzi lagun. Aurrean masta bat zuen: arpoilariari traba egingo balio hobe erdian. Oihala ere erabiltzen zuten baleari hurbiltzeko aizea popatik zenean ⁽⁴⁾.

Ehizan gehien erabiltzen ziren tresnak arpoia eta txabolinak ziren. Eskuz jaurtitzen zen arpoia, eta behin hau barneratzea lortzen zenean, txabolin saioa etortzen zen, animalia odol hustutzen zen arte. Tresna hauek behar beharrezkoak ziren txalopan eramatea balea arrantzatu eta gero partillan edo zatiketean parte hartzeko. Honela dio Santa Klara Kofradiako 1610. urteko ordenatzak: "... que para gozar de dichas ventajas y tener parte en las dichas ballenas todas las chalupas y cada una de ellas hayan de tener y llevar las armas suficientes y necesarias para la matanza de semejante caza so pena que la que no lleuare assi no aya de goze ni tenga parte y sea excluido" ⁽⁵⁾.

Istilu ugari sortzen zen arrantza-guneetan, bale bakar baten atzetik portu desderdinetako jendea elkartzen zenean. Hurbiltasunak sortzen zituen arazoak ziren horiek, talaiari

batek baino gehiagok bale berbera begiztatu eta leku berean bi edo hiru herritako arrantza-leek topo egiten baitzuten. Auzi asko sortu ziren honen ondorioz, eta konponbideren bat ematearren, Ondarroako Kofradiako arrantzaleek beraien artean, eta bestalde, inguruko herriekin (Mutriku eta Lekeitiokoekin) ordenantzak sinatu zituzten honako erabakiak hartuz:

- Azkarren iristen denarentzat izango zen ehiza. Baina azkarren iristeak zera esan nahi zuen, balea helduta edukitzea, arpoia sartuta, alegia. Behin portu bateko ontzi batek arpoia sartu badio, beste portuko untziek ez daukate ezertan parte hartzerik eta ondorioz etekinik eskuraterik, baldin eta helduta daukanari libratzen ez bazaio edo eta portu batekoek gutxi izanik laguntzarik eskatzen ez badute. Honela dio Ondarroa eta Lekeitio herrien artean izenpetutako agiri batek: "... si dicho primer heridor, cuando ha sido con la ballena, se viese en necesidad de socorro por falta de sus consortes vecinos de su villa y cofradia para asegurar y matar las dichas ballenas...". Eta 1615. urtean Ondarrutarren eta Mutrikuarren artean zinatutako agiriak: "... las ballenas que los marineros de la una de las dichas villas no hieran los marineros de la otra villa sino que a los primeros heridores y los de su villa se les deje que la maten, salvo que, aunque los de una villa hayan herido primero, las tales ballenas si a todos ellos se les soltase andando suelta la han de poder herir el que primero pudiere de manera que solo en caso de socorro se les pudiera ayudar una vez de tener la ballena sujeta" ⁽⁶⁾.

- Portu eta kofradia bakoitzak bere arrantza-gune jakina zeukan. Gune horretatik kanpo ez zeukan arrantzan egiterik, eta egitekotan, hainbesteko errenta bat ordaindu beharrean aurkitzen zen: 1626. urtean Antonio de Iturrilbaldak mutrikuarrak ondarrutarrek zalatu zituen Ondarroako uretan ehizatutako balearen zatiketean ez parte hartzeagatik. Ondarrutarrek zauritu zuten balea lehenengo eta berak laugarren. Ez zuen ezer lortu beste herri bateko uretan ehizateagatik eta laugarren zauritzailea izan zelako ⁽⁷⁾. Hainbeste lis-karren artean aipatzekoa da 1632. urtean mutrikuarren haserrea sortarazi zuen beste auzi bat, ondarrutarrekin batera bi bale harrapatu eta saldu ostean ez zutelako beraien partea kobratu ⁽⁸⁾.

Baina gehienetan elkar laguntza nagusitzen zen itsasoan. Hona hemen ondarrutarren eta leketiarren arteko adibide bat: "... la compañía ballenera de Lequeitio entregó a unos marineros de Ondarroa la cantidad de 550 reales por ayudarles a matar una pieza, y en concepto de ayuda por atoar una ballena y traela al a puerto atravesando la barra, 66 reales." ⁽⁹⁾.

1. "Ordenanzas de la Cofradía de 1593", *Ondarroa* 1988, 22. or.

2. "... resultando además otro santuario denominado Santa Clara, costado por los mareantes de este puerto y sostenido por ellos". Ikus "Organización parroquial a mediados del siglo XIX", *Ondarroa* 1993, 75. or. (3. etik 9. aipua hurrengo orrian)



BALEAREN ZATIKETA

10. IRUDIA, Ondarroa Arrigorri aldetik begiratuta, 1640 aldera.

Hiribildua harresiz inguratuta zegoen. Eskubiko orma, gaur egun Politena tabernaren ondoan dauden eskilaren parean. Nekazal jarduerak: herri barruan ortu-ariak; kanpoan, mahastiak. Baleren zatiketaren herri guztiak parte hartzen du: mozketa, egur garraioa, urtzea e.a.

Balea hil ondoren, bi untziren artean azpitik sokak bota eta itxasertzera hurbiltzen zuten. Hondartzan, itsasgora erabiltzen zuten, hurrengo itsasbeheran balea lehorrean gera zedin. Bilatu diren hastarnetan oinarrituz, balea gaur egun Kantoipe eta Artabide kaleetan kokatzen zen hondartzan zatitzen zela esan dezakegu.

Hasiera batean, balearen okela ez zenez jaten, Frantziara esportatzen zen. Baina Erreforma Katolikoak garizuman balenkia jangarri bezala baimendu zuenean, Europa guztian hedatu zen honen kontsumoa. Etekin handiena lumerari (bale olioari), bizarrei eta hezurrei ateratzen zitzairen. Balenbizarra oso estimatua zen eta erabilera anitzekoa: emakumezkoen kortze, abaniko eta soinekoen euskarrietan batez ere. Hezurak, berriz, habeak, hesiak, ate eta lehio buruak, aulkiak e.a. egiteko. Bizarra eta hezurak ezik, gainerako guztia labean urtu eta upeletan sartzen zen. Urtze-lan honetatik lortzen zen lumera argitarako erabiltzen zen batez ere. Makina-tramankuluak leuntzeko ere aparta zen, eta pieza finak zirenean (erlojuak) mihitik ateratako lumera erabiltzen zen, mihia bait zen gorputz zatirik bitxiena ⁽¹⁰⁾.

Balenketak, beraz, beste ekonomi jarduera batzuk bultzatu zituen: txalupagintza, upelgintza, burniolak eta merkataritza. Azken eginkizun honetan emakumeak parte hartzen zuten, Ondarroan eta inguruko herrietan balenkiak salduz. Balea, zati askotan banatzen zen. Harrapaketan zuzenki parte hartu zuten gain, Erregeak, Elizak nahiz Udalak beren puskak jasotzen zituzten. Elizak gehienetan mihia berenganatzen zuen; udala, beste puska batetaz jabetzen zen, eta horren ordainetan kaia, portua eta inguruak txukun mantentzeko ardurak hartzen zuen ⁽¹¹⁾. Erregeari edo eta Bizkaiko jaunari egindako zerbitzuen ordainean, partikularrak ere izaten ziren zerga honen jasotzaileak, probestuak, burguesen batzuk eta abar. Arrantzale bakoitzari bere zatia eman ondoren, gelditzen zen zatia enkante publikoan saltzen zen eskribaua, alkate arrunta eta txalupa maestraa aurrean zirelarik. Kandela bat pizten zen eta erretzen zihoan bitartean norke gehiago eskaini aritzen ziren. Hura itzaltzen

zuzenean, eskaintza hobereana egin zuenarentzat izaten zen enkantean ateratutako zatia. Hasiera batetan, bale erdia edo osoa ateratzen zen subastan. Baina, denborarekin, etekin jasotzaileak ugaltu egin ziren eta zati askotan banatu beharra zegoenez, salmenta ere zatiak egiten zen ⁽¹²⁾.

Barrura begira ere, araudi bat onartu beharra zegoen, balearen etekina banatzeko orduan. Antolaketa lan hau “Cofradia de la hermandad de los mareantes de Santa Clara” edo Santa Klarako kofradiaren bidez bideratzen zen. Arrantzatokira, balea bizirik zegoen artean iristen ziren txalupa guztiak berdina kobratzen zuten. Horrez gain, azkartasunaren eta tresneriaren arabera “abantaila” izeneko gehigarriak jasotzen zituzten. Ehizatutako balea ama eta kumea baldin baziren, abantaila horiek lenengo sei txalupen artean banatzen ziren, lehen zauritzen zuena izanik ongien zarituena. Berdin sarda balea suertatzen bazen. Kabrote Balea suertatzen bazen, berriz, lehengo hirurak besterik ez ziren abantaila horietaz jabetzen zirenak: “... *que las ventajas que aian de llevar sean de esta manera que la chalupa que primeramente heriere las dichas ballenas grandes como sean Madre y Cria y ballenas de sarda leue diez y ocho ducados de benteja y la segunda chalupa lleue doze ducados y la tercera chalupa lleue ocho ducados y la cuarta seis ducados y la quinta quatro ducados y la sexta tres ducados*” ⁽¹³⁾.

Ehizarako tresneriaz arduratzen zenak sari berezia jasotzen zuen, baita talaiariak, eta kofradiak ere, balenketan sortu zitezkeen ezbeharrei aurre egiteko: Txalupa apurketak, arrantzaleen zauriak, eta baita hilketak: “*Ite pusieron por ordenanza que si acaeziese herido alguno de los cofrades(...), en tal caso se le pague a la tal persona toda la costa de botica e medico zirujano (...) y tambien si algun daño hiziere en alguna pinaza solamente en el cargo se le pague el daño. (...) y que si la ballena matare algun hombre, a tal muerto, se le ayan de hazer quatro misas como es costumbre a los cofrades de dicha cofradia e a costa della*” ⁽¹⁴⁾.

3. Santa Klara Arrantzaleen Kofradiako 1638ko Ordenantzan azaltzen den eginkizun hau ekarriko genuke gogora: “*Ite instituyeron y pusieron por ordenanza que los mayordomos, cada uno en el año que le toca, tengan espezial cuidado de encomendar y dar ordean alas “seroras o freixas” de la dicha hermita de Santa Clara hagan luminarias de noche quando hubiere oscuridade y tempestades para que las pinazas e otros vexeles que navegan por la mar (...) sepan donde son y azierten a venir al puerto*”, PEREZ RUBIO, L.: Op. cit., 113. or.

4. ARRINDA, Anes: “Arrain handi bat atrapatzen”, *Ondarroa* 1988, 56. or.

5. “Ordenanza sobre el reparto de ballenas de 1610”, *Ondarroa* 1988, 62. or.

6. AHPO, Mutriku, L. 2620, 157. or.

7. AHPO Mutriku. L. 2599,15. or.

8. AHPO, Mutriku, L. 2623, zenbakigabe.

9. ASPIAZU, J.A.: *Balleneros vascos en el Cantábrico*, 119. or.

10. MURGIL TALDEA, *Euskal baleazaleak. Arrantzaleak ala kortsarioak?* 34. or.

11. Murgil eta Sarda taldeak: *Balea eta euskaldunak*, 158. or.

12. Murgil eta Sarda taldeak: *Balea eta euskaldunak*, 160. or.

13. “Ordenanza sobre el reparto de ballenas de 1610”, *Ondarroa* 1988, 62. or.

14. “Ordenanzas de la cofradia de pescadores de la villa de Ondarroa, Cofradia de Santa Clara 1638”, PEREZ RUBIO, L.: Op. cit., 113. or.



PORTURIK GABEKO HERRI ARRANTZALEA

Herri arrantzalea izateko Ondarroaren ezaugarri bat izan da aspalditik, porturik ez edukitzea. Gabeztasun hau ekaitzak zeudenean nabaritzen zen gehien bat, irudian ikusten dugun bezalaxe olatuek hibaian gora sartzen zirelako, eta txalupak elizaren atzealde hortan baino ez zutelako ziurtasunik aurkitzen. Itsas-ekaitzen ondorioz hamaika txalupa hondoratzen ziren hibaian sartzeko puntu-puntu zeudela. Texeyra kosmografoak 1622 aldera esan zuenez “... *el puerto de Ondarroa era muy poco acogedor. Los vientos del Norte y del Nordeste le cubrían la barra de arena y no era posible franquearla*”⁽¹⁾.

Portura sartzea berez zaila izaten bazen, zer esan gauak arrantzaleak itsasoan harraipatzen zituenean. Horrelakoetan, arrantzaleei lehorreratzen laguntzeko, Kofradiak talaieroa edo besteren bat, Artamuzturrera bidaltzen zuen, farol eta abarrekin argia eginez itsasotik zetozenei haitzen kokapenaren berri emateko. Horrela azaltzen da Kofradiako Kontu liburuetan: “*232 reales pagados al mayordomo importe de 116 estropos que dió para alumbrar de noche en Santa Clara cuando las lanchas faltaban, a razón de dos reales cada uno*”. Are gehiago: gau batzutan txalupak barra aurrean gelditzen behar izaten ziren, portura ezin sartuta: “*47 reales y 13 maravedises pagados los estropos del farol que se necesitaron para alumbrar en las peñas, en algunas noches que se quedaron las lanchas en la punta*”⁽²⁾. Honelako ordainketak sarritan agertzen dira urte bakoitzean zehar.

Barrako sarrera honetan txalupen tirabirak sarri gertatzen ziren, eta horrelakoetan Kofradia zen galdutako arraina, tresmedia edo txalupa bera ordaintzearen arduraduna. Adibidez, 1852-53ko Kofradiako dirukontuetan Pedro Zelaiari ordaindutakoaren berri ematen zaigu “... *por la pesca que perdió cuando se naufragó ante la barra 223, 14 reales*”; eta 1866-67koetan zera: “... *89 reales pagados a Pedro Beitia por los efectos que su lancha perdió cuando se anegó ante la barra, a saber 16 reales de importe de dos cestas, 8 reales por dos paneles mayores, 4 reales por un barrote, 45 reales por los remos y 16 reales el jornal del carpintero*”⁽³⁾.

11. IRUDIA. Ondarroa, 1680. urte aldera (XVII. mendea).

Ekaitz erdian, barraren babesik gabe, olatuak oldarrez sartzen dira hibaian gora. Irudi honetan agertzen zaigu nolako indarraz astintzen zituen elizako ormak eurak, batez ere itsasoa bera zakartzen zenean. Hortik atera dezakegu zer gertatzen zen Ondarroako itsasadarrean bertan. Ezker aldera, Andra Mari eliza, txalupak lotzeko ere erabiltzen zen. Bere eskubira, gaur egun Iparkale bezala ezagutzen duguna dakusagu. Hirigunea inguratzen eta babesten harriz eginiko harresia, eta bere eskubian, herrira igarotzeko zeuden atarietarikoa bat.

Tirabira hauek errealetan zenbatu ahal zirenean, gaitzerdi. Baina sarri, itsasoak, arrantzaleak eramaten zituen, tresnediarekin batera. Barrako sarreran gertatu ziren itsas-ondamendietatik zoritxarrekoenak, 1800. eta 1868. urteetan gertatu ziren, hemeretzi hildakorekin⁽⁴⁾, baina 1700, 1728, 1766, 1816, 1878 e.a. ere zorigaitzoko urteak izan ziren arrantzaleentzat, antzerako ezbeharrak zirela eta⁽⁵⁾. Ittotakoen gorputzak hibaian edo hondartzan bertan agertzen ziren maiz, Ondarroako itsasadarra bera, arrantzaleen hilobi bihurtuz. Tomas Azpillaga Urrosolo, adibidez, 53 urteko arrantzalea, herriko bertsolaria, 1897ko maiatzaren 3an gaueko 11:30ean itto zen eta bere hilotza maiatzaren 13an agertu zen, herriko hibaian. Hurrengo urtean Domingo Manuel Ibaseta Pagateren hilotza hondartzan utzi zuen itsasoak, bezperan itsasadarrean itto ondoren.

Negu aldean, maiz gertatzen zen Kantauriko beste portu batzutatik arrantzara irten arren, Ondarroako arrantzaleak itsasoratu ezinik gelditzen zirela. Honen ondorioz, Ondarroako arrantzaleek, euren ontzia eta familia osoa hartu eta Pasaira eta Donostia alde egiten zuten negu aldean. Portu haiek behintzat itsasoratzea ziurtatzen zieten. Herriko arrantzaleak beste portu batzuetara joan behar izate horrek galera ekonomiko zuzenak eragiten zituen, eta horren inguruan mintzatu zen Pedro Jose Zelaia alkatea 1878an: “... *siendo esta la causa de que todos los inviernos muchos tripulantes con sus lanchas y familias emigran a los puertos de San Sebastian y Pasajes, mermando con este motivo los arbitrios de la villa y todos los demás consumos con grave perjuicio de todo este vecindario*”⁽⁶⁾.

Udalerrira inguratzen zuen harresia, ziurrenik, itsasotik etorri zitezkeen arriskuetatik babesteko eraiki zen. Antiguako baseliza bera harresiz gogortuta omen zegoen, itsas-lapur-rengandik babesteko: “Itxas ertzeko asarraldi, gerra eta lapurretak ugari ezagutu ziran Euskalerrian antxiña. Origaitik itxasertzean egon ziran beste eleiza batzuen antzera, ormaz ingurututa egon zan, gogortuta. Gaztelu bat lez. Alaxe egon zan Santa Katalina Lekeitio’kua eta alaxe Gaztelugatxe”⁽⁷⁾. Beraz, sasoi haietan itsas-ertzean kokatutako herriak oso arriskutsuak ziren bertako biztanleentzat, edozein momentutan eta inolako abi-





PORTURIK GABEKO HERRI ARRANTZALEA

surik gabe etorri zitezkeen eraso hauentzat sarrera bide suertatzen zelako. Ziur aski hau izango da, Erdi Aroan itsas-magalean sortutako hainbat udalerrri goiko aldean eraiki izanaren arrazoia, eta ez itsas lerroan. Ondarroa bera goitik behera hazitako herria dugu (Goikokale, Iparkale, Kalandi), nahiz eta gure herriak gaur egun duen fisonomiak beste zer-bait pentsa arazi dezaken.

Ondarrutarrak, eurak ere, ez ziren atzean gelditzen itsasora irten eta behar zutena eskuratzeko orduan. 3. irudian Juan Perez da Likonaren kasua aipatu dugu, eta Matusin eskoziarrari lapurtutako argimutila, Ondarroako elizan agertu zenekoa. Badaude beste aipamen batzuk ere. 1691n, adibidez, “Donostitik korsario bizikeran urten eta sei itto” ziren ⁽⁸⁾. Hortaz gain, aski ezaguna da, Bartolomé Armaoleak, Ondarroako alkateak, egin zuena 1711n. Ondarroan gosea zegoen, eta zer janik ez. Alkate honek itsasora irten eta “*havía*

abordado a un navio Breton que de la Probinzia de Bretaña salió cargado de trigo para el Puerto de San Juan de Luz” ⁽⁹⁾. Baina, bahitutako txalupako patroiarri ordaindu egin zioten, “zati bat dirutan eta beste metalkiekaz”, eta nahiko pozik gelditu behar izan zen, haindik hiru urtera bere alabarekin Ondarroara osterata egin zuen eta. Beraz lapurreta bat baino gehiago, eskuratze bat izan zela esan dezakegu, 1766ko matxinoek egin zutenaren antzekoa, baina itsasoz. Horrelakoak, egia esan sarri gertatu behar ziren, zeren txalupa Ondarroara ekarri zutenean “*Emen errirako bear zan artu ta inguruko errietara deitu eban (alkateak), Berriatu, Markiña eta abarretara. Lekeitiora ez, lekeitiarrak aurretik ondarrutarrei ukatu egin eutsela orrelako baten partaidetza-ta*” ⁽¹⁰⁾. Gogoratu dezagun, besteak beste, Deban zeuden frantziar soldaduentzat zetorren gariz betetako txalupa bat bahitu izana leporatu zietela ondarrutarrei, 1794ko erreketaren burutzeko aitzakia moduan.

-
1. “Ondarroa vista por CiriQuiain Gaiztarro”, *Ondarroa* 1992, 29. or.
 2. *Santa Klara Kofradiako Kontu Liburua, 1844-1874*, 258. eta 64. orr.
 3. *Santa Klara Kofradiako Kontu Liburua, 1844-1874*, 80 or (1852-1853koak); eta 277. or. (1866-1867koak).
 4. ZUBIKARAI, Augustin: *Kardala*, 27. or.
 5. ZUBIKARAI, Augustin: *Ondarroa, Kondaira 1900-arte*, 298-299 eta 304-308. orr.
 6. ORUEMAZAGA, Imanol: “Porturik gabeko herri arrantzalea”, *Ondarroa* 1996, 16. or.
 7. ARTETA: “Antiguako Eleiza”, *Ondarroa* 1986, 69 or.
 8. ZUBIKARAI, Augustin: *Kardala*, 27. or.
 9. ITXASERTZ: “Los Armaolea de Ondarroa, corsarios y dueños de navío”, *Ondarroa* 1994, 65 or.
 10. ONDARZUBI: “Ondarroako gauza arrigarriak”, *Ondarroa* 1998, 13. or.



FRANTSESEN ERASOA (1794)

Frantziako Iraultzak errepublika-errejimena aldarrikatu ondoren, Europako monarkiek aurka jarri ziren. Eta 1793an, iraultzaileek Luis XVI.ari burua moztu ziotenean, gerra piztu zen Frantzia eta Europako monarkia absolutisten artean: Konbentzioko Gerra, alegia.

Armada espainiarrak Kataluniatik, Aragoitik eta Euskal Herritik eraso zion Frantziari, baina frantsesek aurre egin eta, Bidasoa zeharkatuta, Gipuzkoara eta Nafarroara sartu ziren 1794ko uztailan. Kanpamendua bera Itziar gainean zeukaten jarrita, baina abuztuaren 28an Ondarroan sartu ziren eta “... *en su corta estancia, fueron crueles con la población, cometiendo toda clase de desmanes y dedicándose al saqueo y al pillaje*”⁽¹⁾.

Garai hartan derrigorrezko soldaduskarik ez zegoen Bizkaian, baina gerra bat sortuz gero, Diputazioaren deiar erantzun beharrean aurkitzen ziren bizkaitarrak, euren lurraldea defendatzeko. Beti ere, Bizkaiko Diputazioak berak izendaturiko buruzagien ardurapean eta Bizkaiko mugetatik irten gabe. Ondarroa bera, Bizkaiko lehen herria izanik, Bizkaiko hainbat herrietatik etorritako herritar armatuz bete zen. Batez ere, Ondarroako inguruetan bilduta zeudenak hiribildura barrura sartu zirenean abuztuaren 23an J. G. Gortazar buruzagiaren ardurapean. Zubi Zaharra zaintzea zuten helburu nagusia, Gipuzkoa aldetik igarotzeko bide bakarra baitzen garai hartan.

Abuztuaren 28an, hala ere, frantses soldadu aldra bat - 700 bat, Labayruren esanetan - Gorozikako auzotik zehar Berriatura jo zuen Ondarroa inguratzeko asmoz, dirudiezez. Kalamendian aurre egin zien bizkaitar armatuak gainditu eta Asterrikan behera Ondarroara sartu ziren. Herrian egon ziren bi egunetan era guztietako sarraskiak burutu zituzten: lapurretak, emakumeak bortxatu, eliza bera ere profanatu zuten. Eta azkenean herri osoari su eman zioten. Likona, Apallau eta Goitiniz harrizko dorre sendoak suak irentsi zituen. Santa Maria eliza, Antiguako baselisa eta beste bost etxe geratu ziren erre gabe. Elizako organoari berari ere astindu ederra eman zioten, ez joteko moduan utzi arte. Eta abuztuaren 30ean herritik alde egin zutenean, 20 herritar preso hartu eta Getariara eraman zituzten itsasontzi batean⁽²⁾, adintsuak ia denak. Hauen artean Manuel Rekalde, elizako organista, eta Manuel Argoitia, herriko alguazila.

Preso eramaniko hauetatik erdiak ere ez ziren herrira itzuliko 1795. urtean bakea sinatu arte. Hauek, hain zuzen, eman zieten beste herritarrei Frantziako espetxeetan hildakoen berri zehatza, elizako Hildakoen Liburuan nabaritzen denez. Hona hemen Frantziako presondegietan hil zirenen zenbait datu. GRAMAko espetxean: Manuel Argoitia, 59 urte, ezkondua; Iñasio Arrizubieta, 67 urte, ezkondua; Ramon Ibarrolaza, 56 urte, ezkondua; Jose Ibarrolaza, 48 urte, ezkondua; Juan Bta. Ituarte, 62 urte, ezkondua; Jose Antonio Mendizabal, 64 urte, ezkondua; Jose Retolaza, 40 urte, ezkondua. QUIMPEReko espetxean: Mateo Badiola, 22 urte, ezkongai. SAINT SEREN'go espetxean: Juan Bta. Iramategi, 56. urte, ezkondua; Frantzisko Aranbarria, 51. urte, ezkondua. Haez gain, nahiz eta beste daturik ez izan, Manuel Rekalde berak ere ez zuen herrira itzultzeko zorionik izan.

Ondarroan barruan ez ezik, Gorozikan ere euren krudelkeriaren arrastorik utzi zuten frantses soldadu haiek. "Itxuraz, bidean billatu zituzten gorozikar batzuk, salatari eta espiatzat artu zituen ta ikaragarriko zitalkeriak eurekin egin. Bi beintzat il zituen: Bat bere andrearen aurrean gordin-gordin zatika ebagiten erabili, gorputzeko zati asko miñetan eta bizi-bizi kenduz. Il zanean herrira ekarteko eran ez egoalako, Gorozikako elizan bertan lur emon eutsen (...) Bata, Antonio Alegria, Atxondo baserrikoa zala esan leike... Bestea, Baltasar Etxea, Antzone baserrikoa"⁽³⁾. Ezkonduak biok, 57 urte zituen lehenak eta 65 urte bigarrenak. "Gorozikako martiri"tzat ezagutu zituzten. Lekeitio aldera ihesean alde egin zuten artean ere Juan Antonio Bizente Angulo, parrokiako abade laguntzailea hil zen bihotzekoak jota Mendexa inguruan.

Sua. Heriotza, presoak... Gerrako legea, alegia. Zergatik ezarri ote zioten hain kupidagabe Ondarroako herriari? Mendekua ote? Horrela dirudi. Egun batzuk lehenago, abuztuaren 18 edo 19an, Ondarroan bilduta zegoen herritar armatu talde bat ezustean Mutrikun sartu eta han aurkitu zituzten arma guztiekin jabetu zen. Are, Debaraino ere iritsi ziren. Eta hemen gariz beteta zeuden bi bergantin ostu eta Ondarroara ekarri zituzten. Itziarko gainean zegoen Frantziako armadarentzat ekarritako garia omen zen. Beraz, mendeku bat izan zela pentsa dezakegu. Hala ere, nola uler daiteke frantses soldaduek Ermuko hiribilduan sartu eta hainbat etxe erre zituztela Ondarroa erasotu zuten egun berean, hain zuzen? Ez ote zen izan Frantziako armadak Bizkaiko Jaurerriari eman nahi zion eskarmen-



FRANTSESEN ERASOA (1794)

tu edo abisu bat?

Ondarroako herria hondamendiak jota, eta ondarrutarrak eurak alboko herrietan zehar sakabanatuta egon arren, bere errautsetatik berpizteko nor izan ziren. Azaroaren 2an, batu zen Ondarroako udala Ondarroan bertan, Prudencio Gelaloro alkatea buru zelarik. Parrokiako sakristian, hain zuzen, herriko etxea erreta zegoen-eta. Hurrengo bi urteetan ere Santa Maria parrokiako sakristian biltzen jarraituko zuten, harik eta herriko etxea jaso arte. Kontzeju irekia omen zen. "Ayuntamiento general y concejo abierto" deitu zion udal idazkariak, agian herritik kanpo zebiltzan ondarrutarrak erakartzeko. Baina herritar gutxi hurbildu zen bertara. Errejimenduko kideak eta kitto. Nola hurbilduko, bada, herritik kanpo sakabanaturik zeuden eta ia herritar denak? Eta hildakoen oroitzapenerako eguna izanik, alboko herrietatik Ondarroako parrokira hainbat herritar hurbildu arren, hauetatik inor gutxi urreratu zen sakristiara. "Kontzeju Irekira" deitu arren, badirudi inor gutxi zeukala, eduki ere, hitz egiteko eskubidea. Are gutxiagok erabakietan parte hartzeko.

12. IRUDIA. Ondarroa, 1794ko abuztuaren 28-30 bitartean.

Harrizko Zubi Zaharra jada eginda. Konbentzioko gudarosteek, Ondarroan sartu ziren abuztuaren 28an, eta bi egun herrian pasa ondoren, abuztuaren 30ean sua eman zioten, 20 herritar bahitu gisa eramanez. Frantziarren sarrera Ondarroan Antiguatik burutu zen.

Bilera honetan, herriko hondamendiaren, Ondarroa hiribilduaren heriotza-agiria jasoko dute lehenik herriko agintariek. Baita hitz laburretan egin ere: "Estado de ruina y desolación de este pueblo" ⁽⁴⁾. Ez zitzaien ez arrazoirik falta. Hain negargarria zen-eta herriak eskaintzen zuen irudia! Baina, ein berean, herria berreraikitzeko asmo sendoa nabarmentzen zaigu bilduen artean. Lehen urratsak ere berehala emango dituzte, herrira itzul daitezcan deia berriro helaraziz sakabanatutako herritarrei. Eskari hunkigarria. Euren jaioterriarekiko atxekipenari eta maitasunari dei eginaz, herritarrei luzatutako eskaera: "*excitados del amor de su Patria o de su domicilio antiguo tomen la determinación de restituirse*" ⁽⁵⁾.

Ondarrutar izaera orduan ere herria berreraikitzeko lehen oinarria.

-
1. RIBECHINI Celina: *De la Guerra de la Convención a la Zamacolada*, 38 or.
 2. ZABALA, Aingeru: "El precio de las guerras", *Ondarroa 1997*, 85-86. or.
 3. ZUBIKARAI, Augustin: *Kardala*, 21. or.
 4. OUOBAL, 1794-XI-2.
 5. OUOBAL, 1794-XI-2.



ONDARROAKO LEHEN FRONTOIA ETA KARLISTALDIAK

1 782an eraikitako frontoi honek, 1837. urtean bazituen jada 55 urte. Garai hartarako nahiko luzea zen, zesta-puntarako egokia: *“Luzea zan. Amairu Kuadro eukazan. Zetzalariak be bertan ikasi eta jokatzan eben Markiña’ra joan bear barik. Baiña andiegi zan, eta ormak arrakalaten asi jakozan, sabela urten batzutan, okertzen bestetan. Itxuraz urak, mare andietan, bertaraño elduten ziran eta bere azpiko ondarra erabili ”* ⁽¹⁾ (Ikus 16. irudia). Eskuz jokatzeko frontoi motzagoa nahikoa zen, eta frontoi honen luzerak garai haietan Ondarroan zestak arrakasta gehiago zuela adierazten digu. Frontoi hau eraiki zutenean, kautxo oraindik ez zen ezagutzen. Horren ondorioz pilotak bote edo jagi gutxi-koak ziren eta eskuekin emanez gero ez ziren frontisetik urrutira joaten. Zestak, ordea, beste indar bat zuen, eta hartan jokatzeko nahitaezkoa zen frontoi honelako frontoi luze bat.

Frontoiaren kokapena honelakoa zen: “frontisa” Kresala taberna egon zen tokian zegoen, gaur egun udaletxera aldatzeko eskilara berriak dagoen tokian; ezker hormaren norabideari dagokionez, gaur egun Udalaren lokalak, Bake Epaitegia, Arriola denda, Puri janariak eta abarrek daukaten norabide berean. Hau da: ezker hormak hegoaldetik iparralderako norabidea jarraitzen zuen. Hondar gainean egindakoa zela kontuan hartzen badugu, eta itxaso gaiztoa zein mare biziak gertatzen ziren bakoitzean zernolako tratua pairatuko zuten bere hormek, 1866. urterarte zutik irautea da harrigarriena. Hala ere, bigarren frontoia eraiki zutenean, toki berdinean kokatu arren, bigarren solairuan edo goiko partean eraiki zuten.

Baina, 1786ko frontoia eraiki aurretik ez al zen pilotan jokatzeko? Bai, behintzat. Pilota joko frontoia baino askoz ere zaharragoa da eta eraikin bat dagoen tokian hormak egoten dira. Ziur horma horretan pilotan jokatzeko zela. Gaur egun ezagutzen dugun frontoi mota (ezker hormarekin) XVIII. gizaldikoa da. Zaharragoa da horma bakarrekoa edo fron-

13. IRUDIA. Ondarroa 1837. urtean.

Ondarroako lehen frontoia agertzen da irudian, 1782. urtean eraikia. Ikusten denez, gaur egungoarekin alderatuz, beste orientazio bat zuen. Frontoi hau erori egin zen 1866an. Frontisaren eskubira ikusten ditugunak, herriko kartzelak dira I. Karlistaldiaren garaia da (1833-1839), eta Ondarroa karlisten eskuetan zegoenez, enparantzaren erdian ikusten diren bi militarak, ofizial karlistak dira. Jendeak elizari alokatzen zizkion aulkiak pilota partiduak ikusteko. Ikusleen aurrean, artekari bat dirudiena, giroa berotzen.

tis hutsa daukana. Gaur egun oraindik, Iparraldean eta Lekeition frontoi mota hau ikus dezakegu.

Oraindik zaharragoak dira joko-zuzenak, pilota jokoan ezagutzen ditugun zaharreneak, alegia. Joko honetan, bi talde kokatzen ziren eremu batean (normalean mendi zelaietan), bata bestearen aurrean, eta tantoa edo kintzea egin nahian, elkarri botatzen zioten pilota, (gaur egun ere Iparraldean tantoari kintzea deritzen diote). Ez da ohizkoa baina oraindik agerraldi bezala jokatzeko da. Bitxitasun bezala, Euskal Herritik kanpo, Alikanteko herri batzuetan igandero jokatzeko dela era honetara.

Esan bezala, irudia hau I. Karlistaldiaren giroan txertatuta dago. 1837ko irailean eta urrian, Kristina Erregina liberalaren itsas Armadak hainbat aldiz erasotu zuen Ondarroako herria ⁽²⁾, baina itxura batean behintzat, kalteak ez ziren oso larriak izan. Bitxikeria bada ere, ezin aipatu gabe utzi Perez Galdos idazleak, “Zumalacarregui” liburuan, Ondarroan izkutatuta zegoen kañoi baten berri ematen digula ⁽³⁾, eta Zumalakarregik taldetxo bat bidali zuela Ondarroara hain beharrezkoa zuen kanoi horren bila.

Hurrengo kontatuko duguna, ordea, benetan jazo zela egiaztatuta dago, II. Karlistaldian. II. Karlistaldian zehar, gerra tirabirak Ondarroara bertara ere iritsi ziren. Liberalek eta karlistek, elkarri mokoka, herritarrek armatu zituzten: “Askatasunaren bolondresak” delakokak liberalek. Eta karlistak ere euren aldekoak: “Tercios Carlistas”. Batzuek zein besteek herritik ihes egin beharrean aurkitu ziren, gerra gorabeheren arabera. 1873ko urrian Ondarroa karlisten eskuetan zegoen, eta Andres Badiola patroiak jitoan zegoen baporer bat aurkitu zuten itsasoan. Bertaratu zirenean, armaz eta munizioz beteta zegoela konturatu ziren. Hernandok dinoenez: *“Era preciso meter el vapor en el puerto cuanto antes y proceder al desembarco en seguida, porque cerca de Ondárroa, está Guetaria y allí siem-*





J. L. Burgoo

ONDARROAKO LEHEN FRONTOIA ETA KARLISTALDIAK

pre había buques de guerra republicanos que acudirían al momento para apoderarse de tan buena presa. Se reunieron cuarenta lanchas pescadoras y remolcando el vapor le metieron en el puerto, y hombres, mujeres y niños acudieron al momento a descargarlo, pues como nadie esperaba el desembarco, no había por la costa fuerzas carlistas que le protegieran (...) Enterados los de Guetaria de lo que ocurría, enviaron un buque de guerra a apoderarse del cargamento del vapor abandonado, pero éste, ya estaba dentro y las compañías guipuzcoanas y vizcaínas impidieron desembarcar a los marinos republicanos. Los carlistas, en su presencia, descargaron el precioso tesoro que Dios les había regalado y comunicaron en seguida la noticia a las fuerzas. El vapor traía cuatro mil fusiles y un millón de cartuchos metálicos, más un cargamento en resina y otras materias inflamables”⁽⁴⁾. Ondarrutarrek jasotako arma hauek hil ala biziko papera jokatu zuten II. Karlistaldian, horiekin borrokatu zelako Jurramendi eta Abarzuzako gatazka entzutetsuetan.

1874ko urtarrilaren 31n gobernu liberalak kostaldea itsasoz blokeatzea erabaki zuen. Blokeo hau gogortu egin zen 1875eko udaran. "Vitoria" fragatak -liberal gobernuak zeukan fragatarik indartsuenak- kupidagabe astindu zituen euskal kostaldeko herriak. Ondarroari

ere tokatu zitzaion berea. 40 proiektil jaurti zizkion itsasotik uztailaren 8an. Eta antzeko beste lau eraso hile bereko 22tik 27ra bitartean. Abuztuan eta irailean ere, agertu zen berriro Vitoria gerraontzia, herriko Jai Egunen inguruan, hain zuzen, ondarrutarrak agurtzeko-edo.

Zer esanik ez, Ondarroako herriak 1794-1876 bitartean zehar sortu ziren bost gatazkek eragindako gastuei aurrera egiteko, udal ondasunak xahutu behar izan zituela: Konbentzioko gudua (1793-1795), Napoleonen aurkako gudua (1808-1813), Hirurteko Liberaleko gudu zibila (1821-1823), I. Karlistaldia (1833-1839) eta II. Karlistaldia (1872-1876)... Gerra hauek guztiak utzitako zorrei aurre egiteko, udalak herribaso eta herrilurrak saldu behar izan zituen, eta horrek aldaketa nabarmena suposatu zuen jabegoaren arloan, herri lurra zirenak esku pribatuetara igaro zirelako.

(1) ZUBIKARAI, Augustin: "Pelota tokia", *Ondarroa* 1984, 59 or.

(2) ONDARRUTARRA: "La marina de guerra contra Ondárroa", *Ondarroa* 1989, 11 or. Ikus baita OUOBAL,1844-II-17.

(3) MARTINEZ OTXOA, J.M.: "El cañón", *Ondarroa* 1986, 75-76 orr.

(4) HERNANDO, Francisco: *La campaña carlista (1872-1876)*, 105-106 orr.



ZUBI ZAHARRA

14. IRUDIA. Ondarroa, XIX. mendean. 1846. urte aldera.

Marea Behean. Traineruak eta beladun txalupak hibaian eta hibai alboetako hondartzan lehorreratuta. Ondarrutarrek arraunaz eta belaz besterik ez ziren baliatzen oraindik itsasoratzeke. Txalupa batzuk parrokiaren oinarri diren orma zaharrei lotuta agertzen zaizkigu. Txinget horiek toki berean jarraitzen dute gaur egun ere. Lehen frontoiaren frontisa agertzen zaigu parrokiari itsatsia, jadanik eraikia baitzegoen (1786an). Elizaren ezkerrean, dorre bat (Goiko Torrea?). Harritzko zubia, "Zubizarra" izenez ezaguna mundu zabalean.

Egurrezko zubiak buruhauste eta diru-galera franko sortzen zizkien garai hartako ondarrutarrei. Sarritan konpondu beharrean aurkitzen ziren eta. Ondarroako udal artxiboan gordetzen den udal dirukontuen liburu zaharrenean (1614-1633 urteak), 1616. urtean hasi eta maiz agertzen dira zubi hori konpontzeko herriak eginiko gastuak.

Honelako egoera batean aurkitzen zen Ondarroako udala bera 1689. urtean, eta egurrezko zubiaren ordeztu harrizko zubi sendo bat egitea erabaki zuen, honetarako herrilurrak saltzeko lehen urratsak eman zituelarik. Hona hemen 1689ko uztailan udalak egin zuen batzarraren agiri esanguratsua, A. Zubikarai idazleak euskaratua.

"... asierako, jakiña da uri honen agindupean, ibai eta ubide ganean, alde batetik bestera igaro al izateko eta Gipuzkoa aldera joateko, zubi bat dagola. Zubi ori noiz lurra joko dago, egurrezkoa dalako eta ur-jasa askori eutsi bear izaten dautsalako, oker eta kalte andiak leporatuta. Eta erri onek dirurik ez bestelako era onik ez daukalako, lur lau batzuk besterik, arrizkoa egiteko Castilla'n egiten dan antzera auzotarren artean bere ordainketa banatuta emen eziña danez, erri bakoitzak orrelakoak bere kontura baiño, gure lurraldean oiturazkoa dan eran. Errien konturako da emen zubi eta bideen konponketak bakoitzaren kontura egitea, Bizkaiko Foruak be alan agintzen daukalako eta auzoko probintziak be era berean egin.

Ori ikusita uri honek orretarako ez daukalako beste baliagarrik Madalenako Kofradian dagon Igorotxo mendia, beste bat Lekoia etxearen gaiñekoa, Gabaretxeta, San Bixente Kofradian, eta irugarren bat Asterrika'ko San Lorentzo Kofradian, Eguren etxearen alboan, ain zuzen be danak Berriatu'ko eleizatearen agintaritzapekoak, nai eta eurak salduarren bertako abereentzako bearrezko belardi eta larre gelditzen diranez, ala egitea pentsatu da, erriak beste biderik ez daukalako eta bizilagunak bear bearrezko dabelako. Orrela egiñaz, gaiñera, ba dakigulako zubi barria egitea lortzen ba dogu, garrantzi andiko gertatzen diran zarraren konponketetako gastuak bein da betiko amaitu leikezela.

Eta esandako euri-jasaen gain itsasoaren goraberak be, batez be asarratzen dan egunetan, gogor jotzen dabe, eta utsune andia igarten da zubirik barik ibilbiderik ez dago-

elako eta ain zuzen be ura eta iturria beste aldean egotean kalte andia sortzen dalako, eta ordeztu alde nausian bear aiña urik ez, batez be euririk ez dagonetan.

Oneik eta beste bear-izan asko gogoan eukita, Jainkoak gorde bedin gure Erregeari eskatzen dautsalagun lur oneik saldu edo eskuz-aldatzeko baimen emon daigula, esandako errazoia ontzat artuz eta ain ezaguna dan mesederako" ⁽¹⁾.

Iturriaren ustez, Ondarrutarren nahia eta eskariak XVIII. mendean erdi aldera bete ziren, 1740an hain zuzen. Baina, Iriondo dioenez, Henaok, bere "Averiguaciones" liburuan, Ondarroako armariaren deskribapena egin zuenean, bi arkudun zubia aipatu zuen. Henaok 1704 urtean hil zela kontuan hartzen badugu, eta "Averiguaciones" liburua bere azken lana izan zela, litekeena da harrizko Zubi Zaharra 1691ko udal akordioa burutu eta denbora gutxira eraiki izana ⁽²⁾. Orduan eraiki zen harrizko zubi ederra ibaiaren alde biak lotuz. Hori bai, zubi barri honen eraikuntza gastuak ordaintzeko, udal bilera agirian aipatzen diren herrilur horiek saldu behar izan zituen Ondarroako herriak.

Harrizko zubia behin betirako konponbidea izango zela uste zuten garai hartako ondarrutarrek. Baina, harrezkero, gutxienez hiru aldiz suntsitua izan da:

- "1788. urtean, "itsasoaren gora-berako erresaka"ren eraginez, zubiaren alboko lurrak zotin egin eta okertu ziren, eta Ibero erri-lanetako maisu entzutetsuari deitu eta konpondu beharra egon zan" ⁽³⁾.

- 1936. urtean, frankisten sarrera zela-eta, bota egin zuten, eta berehala berreraiki.

- 1953ko urrian, beste uholde batek gutzit suntsitu zuen, eta haren kokapenari buruzko aztarna batzuk baino ez zituen utzi. 1961ean berreraiki zen.

Estilo erromanikoaren arabera egin zuten harrizko zubia hura. Geroztikan, XIX. eta XX. mendeetan, pintore entzutetsuak ikusi ohi dira zubi hori margotzen. Hauen kuadroak munduko museorik bisitatuenetan ikus daitezke egun. Zubi Zaharra bera, Ondarroako herriaren ezaugarri bilakatu delarik mundu osoan.

(1) ZUBIKARAI, Augustin: *Ondarroa, kondaira 1900-arte*, 190. or.

(2) IRIONDO IBARLOZA Jose María: "Información histórica del puerto de Ondárroa", *Ondarroa 1992*, 59. or.

(3) ZUBIKARAI, Augustin: *Ondarroa, kondaira 1900-arte*, 185. or.





J. L. Berqoo

PEDRO MARIA UNANUE

Urte honetan heldu zen Italiatik Ondarroara berri txarra: Pedro Maria de Unanue hil da. Ondarroak Europan eduki duen ahotsik ospetsuena lurperatu dute Triesten. Pedro Maria de Unanue Iramategi Ondarroako Santa Maria elizan bataiatua zuten 1814ko abuztuaren 16an. Gaztetatik erakutsi zuen musikarenganako eta abesteko zaletasuna. Hamalau urte zituela Etxebarria organistak Lekeitiora eraman zuen kapera tenore eta txantre bezela prestatzeko, solfeoa eta organoa irakatsi zizkiolarik.

1831an Pedro Mari Santanderren zegoen bere senideekin, Ameriketara, La Habanara, joateko asmoarekin, baina lagun batzuk bertako elizan kantatzen jarraitzeko konbenzitu zuten ⁽¹⁾. Handik Madrilerara jo zuen 1835ean, Erret Kontserbatorioan ikasteko asmoz. Ez zuten onartu, bere abots indartsua ez zettorrelako garaiko "castrati" eta falsetisten teknika jarraitzaileekin bat. Garaiko autore eta abeslarien iritziz, Unanueren ahotsa Spinto motakoa zen, hau da, Lirika eta Dramarako egokia den ahots indartsua. Ramon Carnicer musikariak kontratatu zuen, "Teatro de la Cruz"eko korista bezela.

Hurrengo urtean debutatu zuen, Martxoaren 1.ean, Belliniren "Pollione" paperean. Debut arrakastatsu baten ondoren, beste opera batzuk estreinatu zituen, eta Lehen Karlialdia amaitzearen omenez, euskal zortziko bat abestu zuen Madrileko Erret Jauregian "bizkaitar" bezela jantzirik.

1839tik 1840ra bitartean Teatro de la Cruz konpainiaz ibili zen Andaluzian, Rossiniren Otelo, L' Elisir d' amore, eta beste opera batzuk abesten. 1841ean ospez betarik Madrilerara bueltatu zen, Hilarion Eslabaren "Las treguas de Ptolemaida" opera estreinatzerara. Honela diote 1842an "La tarantula" opera abestu zueneko Kadizeko kritikek:

"Madril, Cadiz, eta Sevillako prentsaren bidez ospetsu eta ezagun duten Unanue jaunak, Tamas-en papera abestean, txalo beroak jaso zituen aktu bakoitzean, baina hirugarrenean, ekitaldiko duo delakoan, nabarmendu zen bereziki bere ahotsaren hedadura,

15. IRUDIA. Ondarroa, 1846. urtean.

Marea goian dago, eta ibaia kanalizatu gabe. Elizaren azpian zeuden kartzelen solairua urez estalita Aurreko irudian bezala, herria berreraikia agertzen da, 1794 erreketaren ondorioak gaindituta bezala. Udaletxe Zaharra ez da agertzen. Hurrengo hamarkadan eraiki zen.

ausardia eta sugarra eta hortxe erakutsi zuen, baita, jatortasuna eta erraztasun handia, zati dramatiko eta kantuaren arteko zeregin zaila dotore burutuz. Gure zorionak Unanue Jaunari, eta bere artegintza eta dohain disdiratsuenak landuz, aberriari eman dakiola Europako lehen tenoreetarikoa izatearen aintza".

1842an Paulina Viardot, Europako soprano onenarekin topatu zuen, eta bere konpainiarekin San Petesburgora (Errusia) joateko aukera eman zion. Udaldi hartan Unanue bere jaioterri den Ondarroara itzuli zen, eta herritarrek ohore handiko harrera egin zioten. Bizkaitar marinel herria ez zen askorik aldatu gure tenorea kanpotik ibili zen hamazazpi urteetan: eliza, txikitari jolasten zuen elizpe eta frontoia, bere Goikokaleko etxea, aitaren taberna, zubi zaharra eta arrantzaleen belaontziak berdin berdin zirauten.

Herriak eskainitako ohoreari erantzunez, meza nagusian abestu zuen. Ondarroako Arrantzale kofradian dagoen dokumentu batean erakunde honek "freskagarri bat berari eta bere segiziokoei" eskaini ziotela aipatzen da.

Atsedenaldira onen ondoren, Azaroan, Errusian abestu zuen Europako artista onenak biltzen zuen italiar opera konpainiarekin: Viardot, Rubini, Rovere, Tamburini eta Unanue berbera. 1845an Bergamorantz (Italia) abiatu zen, Donizettiren Gemma di Vergi eta Verdiren I Due Foscari abestera eta handik Triestera. Triesten izango zen Unanuek egingo zuen azken agerraldia, zeren 1846ko Urtarrilaren 1ean gibelaria neketsu baten ondorioz hil zen hogeita hamaika urte zituela.

Pedro Maria Unanue Ondarroak eduki duen abeslari famatuena dela esan dezakegu eta bere ahots eta ospea Europa zehar zabaltu zuela. Bere omenez Madril kale bat jarri zuten. Sentiberaz eta hunkikortasunez abesten zuen tenore honek, beti eraman zuen Ondarroa bere bihotzean, eta guk elixopeko enparantza eta udal kontserbatorioari bere izena jarri bere handitasuna gogoratzen dugu.

(1) Testu honetan aipatzen den informazio guztia bi liburutatik ateratakoa da. Bata, UNANUE FUNDAZIOA: *Pedro Maria de Unanue, nazioarteko euskal lehen tenorea*; eta bestea DENTICI BURGOA, Nino eta ZUBIKARAI, Juan Antonio: *Memorias de Don Pedro Unanue*.





J.L. Burgóo

ONDARROAKO DORREAK ETA UDALETXE ZAHARRA

1850. urte aldera Ondarroak honelako itxura zuen. Gure herriaren fisonomia goitik behera aldatu zen hurrengo 50-60 urteetan. Beraz, antzinako Ondarroaren azken irudia hau dela esan dezakegu, eta arretaz begiratzen badugu, ikuspegi honetatik, frontoia gehitu dela, eta harresiak bota direla kontuan hartzen ez badugu, 1510. eta 1850. urteen bitartean Ondarroak ez zuela aldaketa handirik bizi izan konturatuko gara, hirigintza arloan behintzat. Paradoxikoki, gaur egungo ondarrutarrok gutxien ezagutzen dugun herriaren zatia hau da, bertan bizi ez garenontzat behintzat. Izan ere, gure eguneroko bizitza beheko kaleetan egiten dugu, 1895etik aurrera itsas-adarrari lapurtutako lurretan, alegia; eta mendeetan zehar gure arbasoen Ondarroa izan dena geroz eta gutxiago zapaltzen dugu. Ez da harrizkoa, gune berri honek zerbitzu moderno guztiak biltzeaz gain (udala, ikastetxeak, banketxeak...), lehenago Alde Zaharrean kokatzen ziren jarduerak erakarri baititu (tabernak, dendak...). Nork esango luke gaur egun, erdi ahaztuta daukagun Alde Zahar horretan dozenaka taberna eta sagardotegi pilatzen zirela orain dela gutxira arte?

Alde Zahar horretan kokatu ziren Ondarroa zaintzen zituzten dorreak. Ezagunena Likona dorrea dugu. Baina Apallu tabernako etxean obrak egin zituztenean, hara non agertu zen “Etxeandia” izeneko antzinako dorrea. Toponimiak berak beste dorre batzuk ere egon zirela adierazten digu. “Goiko Torre” bezala ezagutzen dugun etxeak, ziur aski zer ikusi zuzena dauka 14. eta 15. irudietan Burgoak marraztu duen dorre horrekin, gaur egun -kanpotik begirata behintzat- inolako dorrerik nabaritzen ez bada ere. Jakin badakigu sasoi batean Ondarroan gutxienez bost dorre izan zirela. 1541. urteko agirian - “*Libro Padron para hazer el repartimiento y derrama concejil segun huso y costumbre della*”- bost dorre aipatzen dira behintzat: “la torre de Pero Ibañez de Goitiniz”, “la torre de Domingo de Gallate”, “la torre de Mari Ignacio de Licona”, “la torre de Ana de Irarrazabal” eta “la torre de Ignacio Ortiz de Apallua”⁽¹⁾. Zalantzarik gabe, dorre hauen eginkizuna militarra zen batipat, eta beraz ez zaigu harrizkoa irudituko Enrique IV.ak -Gaztelako Erregeak-, Euskal Herri osoko dorreak txikitzea (“desmochar” esaten da idatzian) agindu izana, horien artean, Likona Dorrea.

16. IRUDIA. Ondarroa 1850. urte aldera.

Udaletxe zaharra eraikitzen hasi gabe. Ondarroako lehen frontoia (1786-1866), hondar gainean eraikia. Harresiak jada botata, baina hibaia oraindik kanalizatu gabe.

Likonatarrak, berez, Mendexakoak ziren, baina laster finkatu ziren Lekeitioko portuan, 1414an Martin Garcia I.a merkataria Ondarroara etorri zenean, derrigorrezko erbesteartze baten ondorioz⁽²⁾. Orduan eraiki -edo berriztatu- zuten Likona Dorrea, Ondarroan Torre Barria ere deitzen dena, aurretik zegoen beste baten gainean eraiki omen zelako: “Esta Torre Barria de Ondárroa, se dice que substituyó a otra anterior, como lo indica su nombre, y segun el P. Cros, por encontrarla ruinosa, la levantaron los Liconas de Lequeitio al trasladarse a Ondárroa”⁽³⁾. Edonola ere, Likonakoa izan zen 1794ko suteak kizkali ez zuten dorre bakarra, beste bi etxe eta Andra Mari Elizarekin batera.

Hain zuzen ere, Andra Mari Elizari itsatsita hasi ziren eraikitzen 1850ean Ondarroako udaletxe zaharra. Proiektua 1776 urtetik zetorren. Orduangoa da behintzat Jose Lorenzo Etxezabal presbiteruak udalari eginiko protesta “... *por no hacerse cargo, sin duda, de los muchos y graves inconvenientes que de ello se seguirían siendo entre ellos los más notables, el primero de oscurecer totalmente el Coro de la misma parroquia cegando el único lucero que tiene; El Segundo de que se continúe bailando bajo de cobertizo y pegantea a la misma parroquia; y el tercero, de que teniendo la obra de esta sacados los arranques y cimientos para la torre y campanario, de que carece, no podría llebar efecto el que se efectue en tiempo alguno, sin derribar dicha Casa Concejil nueva*”⁽⁴⁾.

Udalaren egitasmoak ez zuten aurrera egin. 1831n, ordea, udaletxea hondatzeko zorian zegoela-eta, Mariano Jose Laskurain injineruari proiektu bat egitea agindu zion udalak. Proiektua egin bai, baina ez zen gauzatu, I. Karlistaldia zela eta. 1843an, udaletxeaz gain, alondegia ere elizaren ondoan eraikitzea aztertu zuen udalak, baina Antonio Garramiolaren protestak ezerezean utzi zuen ekimena. 1850ean, azkenean, udaletxe berri bat eraikitzeke erabakia hartu zen. Gastuak ordaintzeko Errioxako ardoari zerga berezi bat ezarri zitzaion, eta berehala egin zuten. 1852an bukatuta zegoen. Gastu orokorra 91.660 errealelara heldu zen, hasiera baten egindako aurrekontuak 73.349,17 errealetkoa bazen ere.

(1) ZUBIKARAI, Augustin: “Ondarroa y sus torres”, *Ondarroa 1984*, 3. or.

(2) AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: “Los Likona de Ondarroa durante el siglo XV”, *Ondarroa 1991*, 7 or.

(3) AREITIO, Dario: “Estudio sobre la Vida de San Ignacio de Loyola”, *Ondarroa 1991*, 77. or.

(4) ZUBIKARAI, Augustin: “La Casa Consistorial del siglo pasado”, *Ondarroa 1990*, 43. or.





ONDARROAKO BIDEAK

Irudian, Zubi Zaharra dakusagu, 1857-1858. urteetara arte. Zubi hau izan zen ibaiaren eskuin aldetik zetozenek (bai Gipuzkoatik, bai Gorozika aldetik) zeukaten igarobide bakarra. 1857. urtean hasi ziren, hain zuzen ere, gaur egun Zubi Barria deitzen dugun hori eraikitzen.

Zubiaren ezker aldean, Santa Klara kofradiaren eraikinak. Eskuin aldean, Aita Piedaderen ermita (“Aittepirere”), herriaren sarreran. Era honetako ermitak sarri aurkitzen ditugu herrien sarrera-irteeretan. Garai hartan, bidaiatzea nahiko arriskutsua izaten zen, istripuak eta piztiak ez ezik, bidean bidelapurak aurkitzea nahiko normala izaten zelako. Kontutan hartu dezagun, adibidez Errioxarantz zihoan merkataria, soinean eraman behar zuela jenerua erosteko dirua; bide zidorretatik zehar, mendiz mendi egiten zuen bidaia, eta mendiak, garai hartan, bidelapurren eta gaizkileen babeslekurik gogokoenak izaten ziren.

Zeren, Euskal Herrian ere, bazeuden bertoko bidelapurak edota bandidoak, nahiz eta euskaldun askoren ustetan, horiek Sierra Morenatik hegoalderako kontuak izan. Eskualdean bertan, 1837 aldera, “Escribania” eta “Tropela” bidelapurren berri ematen digu, Enriqueta Sesmerok. “Escribania”, Jose Laca berriatuarrak erabiltzen zuen ezizena zen ⁽¹⁾, Antonio Olabarriarekin batera - “Tropela”- Trabakuan gora zihoazen merkatariei eraso eta lapurreta egiteko. Zeregin honetarako Iruzubietako ostalariaren laguntza ezin hobea zuten, honek, bidaiariei buruzko informazioa ematen zielako, lapurtutakoaren zati baten truke.

Gaua bidelapurren aliatua zen. Gauean argia edukitzea, hiribilduen luxu bat zen, baina harresitik kanpora, iluntasuna zen nagusi, eta ez zen leku ziurra, ezta agintarien ordezkarietzat ere. Bidelapurrek hilketa edota erreketak mehatxuak erabiltzen zituzten beren aurkako salatariak ixiltzeko. Bandido hauek gizartearen esparrurik xume eta bazter-tuenetatik zetozen normalean, baina bizitza sasi-normala egiten zuen bandidoak ere aurkitzen ditugu. Emakumeak, normalean informazio lanetan aritzen ziren, hauek ere arriskuak hartzen jakin arren: “Escribania”ri, adibidez, bere emakumeak lagundu zion Markinako kartzelatik ihes egiten, harrapatu zuten batean.

Beraz, herritarren ziurtasuna hiribilduko harresiak amaitzen ziren leku berberean bukatzen zela esan dezakegu. Hiribildutik kanpo, bidelapur eta gaizkileen eremuan sartzen zen, batez ere gauez bidaiatzen zenean. Ondorioz, ez zaigu harritzekoa irudituko, hiribilduetako atarrietan, irudi honetan dakusagun antzerako ermitak aurkitzea, bidaiariek eta mer-

17. IRUDIA. Ondarroa 1857. urte aldera.

Marea behean. Zubi Barria eraikitzen hasi gabe. Zubi Zaharraren ondoan, Aittepirerereko sarrera.

katariek irtetzerakoan, bidai baketsu eta emankor baten alde otoi egin zezaten, edota eskerak emateko ailegaterakoan.

Bidean hara eta hona ibiltzea arriskutsua bazen, zer esan, Ondarroa bezala herrialdeko mutur batean, ia ia inkomunikatuta aurkitzen zen hiribildutik igarotzea. Mutrikurantz zihoan bideari dagokionez, XVIII. mendearen bigarren erdian, oso egoera kaxkarrean zegoen, baina bidea Berriatuko lurretan zegoenez -Astillerutik Arrigorriarantz-, eta Berriatuak ez zituen horren ondorioak pairatzen, bideak konpondu gabe jarraitu zuen. 1786an, Mutrikuk eta Debak Bergararantz zihoan bidea berriztatu zuten, baina Ondarroak ez zituen obra honen onurarik jaso, Ondarroatik Mutrikura ailegatzea oso neketsua eta arriskutsua zelako. Izan ere, hiru urte lehenago mandazain batek bere zaldieria eta arraina galdu zuen, haitzetan behera itsasora erori zirelako ⁽²⁾. XIX. mendearen erdialdera, Gipuzkoak herrialdeko bideen sarea egin zuenean, Mutrikuko plazan bukatu zuen bidea. Bizkaiako diputazioak, bere aldetik, Ondarroako hiribilduaren sarreraraino ekarri zuen Markinatik zetorrena. Beraz, Ondarroa eta Mutriku elkarrekin lotu gabe gelditu ziren. Arazo honi konponbide bat aurkitzeko bi herrietako ordezkariak Arbelaiz baserrian bildu ziren 1851n, eta bide bat egiteko konpromezua hartu zuten, baldintza zehatz batzuetan oinarrituz ⁽³⁾.

Erabaki honek bere kezak sortarazi zituen, batez ere Ondarroako arrantzaleen artean, udalak Zubi Zaharra jeisteko asmoa zeukala zabaldu baitzen, eta horrek kalte nabarmenak eragiten zituelako, *“irrogaría notables perjuicios por las sencillas razones que están al alcance de V.S. y todo el vecindario, ya por la interrupción de la cañería de los lavaderos que atraviesa el puente, ya por el servicio que presta en la elevación que tiene para colgar redes de todas clases, velamen y otros efectos de lanchas y últimamente el paso de buques que puedan fabricar en el astillero y lanchas de cabotaje que frecuentemente suben al barrio de Rentería a cargarse”* ⁽⁴⁾.

Badirudi arrantzaleen protestak bere oihartzuna izan zuela, urte batzuk beranduako Zubi Barria egiteko proiektua gauzatu baitzen. Zubi honi esker, Gipuzkoa eta Bizkaiaren kostaldeak lotuta gelditu ziren 1858. urtetik aurrera.

Lekeitorako bideari dagokionez, 1864ra arte Mendexatik eta Goimendiatik zetorren, eta Goiko Kaletik zehar sartzen zen Ondarroan. Ahalegin askoren ostean, gaur egun kostaldetik datorren bidea zabaldu zen 1875ean.

(1) SESMERO CUTANDA, Enriqueta: “Partidas paralelas”, *Los carlistas (1800-1876)*, 358 or.

(2) LIKONA: “Algunos aspectos y curiosidades de nuestra villa”, *Ondarroa 1995*, 55. or.

(3) ZUBIKARAI, Augustin: “Zubibarría”, *Ondarroa 1982*, 33. or.

(4) ZUBIKARAI, Augustin: “Zubibarría”, *Ondarroa 1982*, 33. or.





J. L. Burgoa

ONDARROAKO ONTZIOLAK

Ondarroa, bere kondairan zehar, arrantzale herria izateaz gain, ontzigintzaren herria ere izan da. Herri bezala ofizialki sortu zenetik, herritarrek, ontziolak egiteari ekin zioten. Ontziolen lehen aipamenak, 1496. urtekoa dira, bi hain zuzen ere. Lehen Fortuño Ibañez Irarrazabalek ondarrutarrak egin zuen, "Trinidad" bere txalupa Ondarroako ontziolan egin zela adierazi zuenean, Juan Otxoaren aurka mantentzen zuen auzian ⁽¹⁾. Bigarrena, Teresa Etxabarriarenak egin zuen, baimena eskatu zuenean "... para podades fazer e deficar la dicha venta en la dicha canal cavo el astillero, qu'es entre la dicha villa de Ondarroa e la villa de Motrico" ⁽²⁾. Bigarren aipamen honek, gainera, Ondarroako ontziolatza ezagutzen zen honen kokapena adierazten digu, Mutrikurako bidean, orain dela urte gutxira arte Antzosoloko ontziola kokatzen zen lekuan, hain zuzen ere.

Badirudi, jada XIII. mendearen amaieratik, Ondarroako ontziolen ekoizpena zeharo garatu zela, Gaztelako erregeek egiten zioten ontzi eskabidea handitzen zihoan eta ⁽³⁾. Lehengaiak ez zituen falta, Guiarden esanetan egurra eta burdina lortzeko aukera errazak baitzeuden eskualdean: "En su comarca, abundantísima en maderamen, fondo principal del comercio de Ondarroa, con el porteo de hierro, durante largo tiempo..." ⁽⁴⁾.

Ondarroako ontzigintzaren garapena, garaian garaiko testuinguruak baldintzatu zuen. Sasoi batzuetan eskari gehiago egoten ziren, beste batzuetan gutxiago. Edonola ere, bertako ontziolan era guztietako zurezko ontziak egiten ziren: potintxoak, baidakoak, treñeruak, meriñakeak, potiñak, zagakoak, txalopa handiak, bolintxeruak, lurrinkiak (baporontziak), arrasteruak eta abar, arrantzarako. Bergantinak, goletak, katxeak, pailebotak, balandrak, gabarrak eta abar, merkataritzarako. Gudarako patatxeak ere bai ⁽⁵⁾. Eskabidea nahiko baldintzatu zegoen. Alde batetik, arrantza jarduerak jasaten zituen gorabeherengatik; eta bestetik merkataritzara arloan, nazio arteko egoera politikorengatik.

XVII. mendean zehar honako lau ontziola zeuden Ondarroan: Domingo Etxeberriarena, Esteban Txurrukarena, Antonio Urkiagarena eta Martin Renteria ⁽⁶⁾. Garai batean, 1865-1916 urteen bitartean, Euskal Herriko itsasalderako treñeru eta beste arrantzontzi txiki gehienak Ondarroako astilleruetan egin ziren. Horren lekuko, Artibai ibaiaren alde bietan Berriaturaino barreiatu aurkitzen ziren hurrengo ontziolak dira: Jose

18. IRUDIA. Ondarroa, 1860. urte aldera (XIX. mendea)

Ikuspegi orokorra. Marea behean zegoenean, Artibai hibaiaren errebueltan, hondartza zabal bat gelditzen zen. Lehen frontoiaren ikuspegi bikaina, errebote eta guzti. Elizako aldapa hasten zen lekuan -Goiko Dorrearen ezkerrean-, moila antzeko bat eraikita.

Tomas Ikaranena, Jose Maria Zumetarena, Pedro Arriolarena, Bitor Urrestirena, Jose Maria Aranbarrirena, Kandido Arriolarena, Anton Arriolarena, Agustin Legardarena, Domingo Aranbarrirena, Manuel Telleriarena, Jose Maria Iruetarena, Jose Legardarena, Anton Urrestirena, Genar Osarena, Jose Antonio Arriolarena, Jose Maria Agirrerena, Agustin Egurrolarena, Domingo Legarazarena, Genar Agirrerena, Agustin Legarretarena, Jose Mari Garlirena, Teodoro Ugalderena eta beste txikiren bat ere ⁽⁷⁾. Adibide gisa, 1878-1912. urteetan Kandido Arriolaren astilleruan bakarrik era guztietako 600 ontzi inguru egin ziren ⁽⁸⁾. Hona hemen astilleru horietako batzuen kokapena:

- Urrestirena: Oraingo Arraun Elkarte dagoen tokian.
- Candido Arriolarena: Bloem arrain lantegitik, oraingo Agirreoa arrain lantegira.
- Jose Maria Iruetarena: Aittepirerereko elizatxoaren alboan.
- Anton Arriolarena: Caroliñaneko etxearen behealdean, gaurko "Latxanbre" enparantzara.
- Genar Osarena: Lehenengo, Jose Tomas Ikaranen astillerutik oso hurbil, eta gero Zaldupeko iturriaren ondoan.
- Teodoro Ugalderena: Zaldupeko toki berean, Genar Osak itxi eta gero.
- Anton Urrestirena: Errenderian.
- Jose Tomas Ikaranena: Frontoi eta Iparkale bitarte inguruan.
- Agustin Legardarena: Gaurko Kanttoipe kalean, 14an, BBKko bulegoak dauden tokian.
- Jose Maria Garlirena: Oraingo Artibai kalearen 14. eta 16. zenbakien bitartean (Artibai egoitza eta Ortizen arrain lantegiaren ondoan).

Lurrin-makinak baporetan sartzen hasi zirenean -XIX. mendearen azken aldera- ontzien tipologia aldatu bazen ere, ontziolen ekoizpen jarduera suspertu egin zen, garai berrietara moldatuz. XX. mendean zehar, jarduera hau mantendu egin da, baina bertako langile kopurua nahiko aldakorra izan da. 1960ko hamarkadara arte, kopuru hau 60-100 langileren bitarte ibiltzen zen. Urte hauetatik aurrera langile kopurua jeisten joan zen, eta azken ontziola zarratu zenean -Arriola eta Urrestirena, 1981ean- 10 zurgin baino ez ziren gelditzen ⁽⁹⁾.

(1) AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Dos menciones del astillero de Ondarroa al término medieval", *Ondarroa* 1994, 94. or.

(2) AGUIRRE GANDARIAS, Sabino: "Dos menciones del astillero de Ondarroa al término medieval", *Ondarroa* 1994, 96. or.

(3) MANTECON, Elba: "Antiguos astilleros de Antzosolo", *Ondarroa* 1987, 76. or.

(4) ZUBIKARAI Augustin: "Los famosos astilleros ondarreres", *Ondarroa* 1983, 64-68 orr.

(5) AGUIRRE FRANCO, Rafael: "Estropadak. Regata de traineras". (Separata) Ed. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.*, 557. or.

(6) P.HENAO: *Averiguaciones*. GUIARD Teófilo: *Industria naval vizcaína*, Ed. Biblioteca Villar, Bilbo, 1968.

(9) MANTECON, Elba: "Antiguos astilleros de Antzosolo", *Ondarroa* 1987, 77. or.



ONDARROAKO PILOTARIAK ETA TXISTULARIAK

1 895ko abuztuaren 16an zestazko partidua jokatu zen, hortxe, irudian ikusten duzuen frontoian. Alde batetik, Kintin Basaguren -“Txikito de Ondarroa” zetzalari edo puntista ondarrutarra- eta Arakistain bere kidea. Bestetik, Jorge Lezuri eta Domingo Etxaburu. Denak jokalaririk profesionalak. Aipatzekoa da, Kintin Basagurenek berak proposatu ziola udalari partidu hau antolatzea, berak eta Arakistain-ek musutruk jokatu zuten zutela adieraziz, eta beste biek eskupeko txiki baten truke. Antolakuntza lanak ere bere gain hartzen zituen. Udalak pozik, hitza hartu zion Kintineri eta partidua jokatu egin zen, nork irabazi zuen ez dakigun arren.

Gure herrian pilotari oso onak egon dira; bai eskuz bai zestaz. Hogeigarren gizaldia- ren hasieran agertzen zaigu Ibaseta, Bikandi eta Anakabe ondarrutarrek Bilboko Euskalduna frontoian zestaz jokatuak. Geroago ere, zetzalari onak sortu ziren Ondarroan, baita profesionalen arloan ere: Guillermo Amutxastegi (fenomeno bat), Isidoro Urrutia, Totolo, Ondarru, Arrasate e.a. Herritar hauek mundu zabaleko frontoietan jokatuak dira.

Eskuz ere bazegoen ederto jokatuak zuenik, baita profesional mundura heldu zirenak ere: Arteondo, Aulestiarte “Katuzarra” e.a. Azken bi hauek, herriko frontoian hainbat aldiz jokatuak. Aipatzekoa garai hartan herriko jaiak abuztuan eta iraileko Andra Mari egunetan ospatzen zirela eta bietan nola ez, pilota partiduak egoten zirela.

Garai hartan, pentsaezina zen Ondarroa bezelako herri bat frontoi gabe egotea. Frontoia, herriaren bihotza zen, ez eguneroko bizitzan, baina bai asteburu eta jai egunetan. Elizaren ondoan zegoen, herriaren erdi erdian. Herritarrek biltzeko eta bakoitzak bere trebeziak erakusteko toki aparta zen. Kontutan hartu behar da, pilota eta arrauna kenduz gero, ondarrutarrek aukera gutxi izango zutelako beste kirolik egiteko edota ikusteko.

19. IRUDIA, Ondarroa 1895. urte aldera.


Ondarroako bigarren frontoia (1867-1908). Lehena bezela kokatua, baina solairu bat gorago. 1867. urtean eraikia izan arren, irudi honetan ikusten den bezala 1895. urterako nahiko gaizki zegoen jada. Ezker horman ere nahiko arrakala handiak zituen, eta oso arriskutsua zegoenez 1905. urtean botatzea erabaki zen, berri bat eraikitzeko asmoz. Elizara doan bidea (gaur egungo frontisaren atzekoa) zeharo ez zuten zutela ikus dezakegu, korreta azpiko horma eskubial- dera luzatu zutelako. Korreta azpi horretan, herriko kartzelak. Irudi honetan margolariak jai giroa erakusten digu, jairako behar diren elementu guztiak. Eserlekuan zutik, danbolinterua eta atabalerua.

Frontisaren eskubira ikusten ditugunak ateak herriko kartzelak dira, agian ez denak. “Ezkerreko ormea egiteko, ordurarte Korreta-barri azpian egozan espetxeen alderdia artu zan (...) Ori argi ikusten dan Zubiaurre tar Erramon margolariak margotutako lauki bat ba-dago. Antxe ikusten dira ederto Korreta azpiko kartzelen ate ta leioak eta gero pelota tokiaren aurre izango zana”⁽¹⁾. Gaur egun daukagun frontoia eraiki zutenean -1908an- estali zituzten ate hauek. Oraindik gaur ere, ez dakigu ziur kartzelak izandako zulo horiek betete edo hutsik dauden.

Esan bezala, bigarren frontoi hau frontisetik arrakalatzeko hasi zen, eta ezker horma ondo zegoen arren, oso-osorik eraitsi eta berriz egitea erabaki zen udalean. Erabaki honen aurka protestatu zuen Juan Antonio Garramiola zinegotziak 1906ko urtarrilean buruturiko udal batzarrean. Hitzartuta zegoenaren kontra, eraisten ari zen frontoien harriak ez ziren banan banan jasoten, frontoi berria eraikitzeko orduan berrerabiltzeko, goitik behera botatzen baizik. Hortaz gain, Garramiolak salaketa gogorak egin zituen bilera horretan, frontoien errausketa gomendatu zuen injineruaren aurka: “... protesta con todo su alma por la enormidad de dar en tierra con el hermoso y sólido frontón de este juego de pelota, con el objeto sin duda de disponer de más honorarios y de dar mejores vistas a unas fincas en el que el ingeniero Celaya se halla interesado, con todo de haber un informe favorable de su solidez del Arquitecto Sr. Acebal, traído por el Ayuntamiento a su examen personal”⁽²⁾.

Egia esan, Acebal injineruaren txostenak frontoia botatzea gomendatzen zuen, beraz Garramiolaren protesta Zelaia injineruaren aurkako erresuminean oinarritzen zela esan genezake. Zer zela eta? “... bere esanetan, inkiñeru zan Zelaia’k ba eukazalako ingurutan berari ikutu egiten eutsen lur zatiak, bere amarenak ziralako, eta arei ikuspegi zabalago bat emoteko aukera egon eikean bitartean”⁽³⁾. Ez dakigu Zelaiaren amaren lurrak non zeuden, baina 20. irudia begiratzen badugu, zenbait partikular ezezik, herri guztiak ikuspegi





ONDARROAKO PILOTARIAK ETA TXISTULARIAK

zabal bat irabazten zuela konturatuko gara. Garramiola eta Zelaiaren arte ezinikusia aurretik zetorren: *“Desde el 5 de Noviembre de 1904 don Victoriano Celaya figuraba como “ingeniero director” de toda clase y especie de obras municipales. No le aguantaba Garramiola, quien, además, sostenía que su nombramiento era ilegal, pro cuanto fue nombrado siendo alcalde don Segundo de Ibaibarriaga, que era primo de Celaya. Por ello necesitó de nuevo nombramiento”* ⁽⁴⁾.

Udaletxeko kontuak alde batera utzi, eta gatozen berriz herriko frontoira. Sasoi hartan erromeria edo jai girorik ez zegoen txistuaren soinu barik. Izan ere, ez zegoen beste musika mota bat entzuteko aukera gehiegirik.

Antzinako Errejimeniko gizartean txistuak zeukan garrantziaz ohartarazteko datu batzuk eskainiko ditugu. 1745. eta 1747. urteen bitartean Ondarroako udalak auzi bat eduki zuen Burgoseko Gotzaingoarekin, abadeak errezuetarako kanpaiak jo ondoren ere (Aremaitxakuk, Avemaritakuk edo Angelus), jendeak dantzak amaitu arte jarraitzen zuelako, txistuaren soinuak liluratuta, beharbada.

Txistulariei dagokionez, 1761ko irailaren 27ko Udal Batzarrean Ondarroan bertan bizi zen txistulari bat edukitzea komenigarria zela ikusirik, udala 20 dukat ordaintzeko

prest agertu zen, eta Kofradia beste 10. Aurkitu zuten norbait, baina 1783ko uztailaren 20ko Udal Batzarrean, azkenengo txistularia joan zenetik herrian ez zegoenez ordainduta txistularirik, bateren bat kontratatzea komeni zela erabaki zen, gazteak herriko plazan elkartu zitezten eta ez ezkutuko tokietan. 1809ko otsailaren 5ean, Domingo Arriola kontratatu zuen udalak, 6 urtetarako txistulari eta aguazil lana betetzeko. Datu askok adierazten diguten bezalaxe, garai hartan bi lanpostu hauek batuta joaten ziren. 1814.urtean Arriola berari txistulari lana 5 urtetarako luzatu zioten.

XIX. gizaldiaren amaieran txistuaren gainbehera hasi zen. Izan ere, beste instrumentu batzuk sartu ziren: tronpa, tronpeta, fliskornoa, bombardinoa, tuba, tronboia, oboea, klarineta... Eta tresna hauek musika banda bat sortzeko egokiak ziren, instrumentu ezberdinen soinuak nahastuta musika goxoago bat sortzen zutelako. Ondarroan bertan, 1889.urte aldera sortu zen musika banda, nahiz eta aurreratu batzuk 1867. urtean jada elkarrekin jotzen hasiak ziren. Hortik aurrera txistua pixkanaka-pixkanaka baztertzen hasi zen, eta txistuarekin batera aureskuak, orripekoak, arin-arinak edo salina-salinak, hauek ez baitziren musika bandak joteko eginak.

(1) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa* 1986, 9 or.

(2) ESKER-ESKUMA: “Del fronton de pelota y otros”, *Ondarroa* 1986, 59. or.

(3) ZUBIKARAI, Augustin: “Pelota tokia”, *Ondarroa* 1984, 60. or.

(4) ESKER-ESKUMA: “Del fronton de pelota y otros”, *Ondarroa* 1986, 60. or.



ONDARROAKO LEHEN ZABALDURA (1)

Bigarren Karlistaldiaren ondoren (1872-1876), gorakada nabarmena ezagutu zuen Ondarroako herriak. 1840. urte aldera, hain zuzen ere, pare bat dozena txalupa besterik ez ziren biltzen Ondarroan, gehi bi astilleru eta Santa Klara kofradiaren eska-betxetegia. 1885. urte aldera, ostera, ehun bat txalupa porturatzen ziren bertara. Arrantzakoak gehienak. Garraioan ziharduten ontziak eta balandrak ere ez gutxi. Astilleruak ere sei. Herritarrek eraikitako arrain kontserbategi berriak ahaztu gabe. Begi biztan zegoen azpiegitura berrien beharra.

Ekonomiaren gorakadaren eraginez, herriaren biztanlegoak ere nabarmen gora egin zuen. Hiribilduaren kortsea, hestuegia bilakatzen zitzaizkien ondarrutarrei. Egoera horren aurrean, Kanttoipetik itsas aldera ageri ziren hondartza eta padura zabaletan jarri zituzten begiak Udalak eta Santa Klara kofradiak. Hondartza haiek itsasoari irabazi behar zitzaizkion nahitaez. Hori bai, erakunde bakoitzaren premiak ezberdinak ziren.

Norgehiagoka honetan, azkenean, Udala bera gailendu zen. 1887. urtean, Madrileko Gobernuak Erret Agindu baten bidez, Ondarroako udalak eginiko eskariak onartu, eta Kanttoipetik gaur egun Vega ostata kokatazen den tokira bitarteko hondartzak lehertzeko baimena eman zion. Are gehiago, horrela lortutako 13.500 metro karratuen jabegoa ere udalari eman zitzaion, etxebizitza berriak egiteko aukera emanaz.

XIX. gizaldiaren azken urte haietan, bazen joan-etorria Kanttoipetik aurrera. Ondarroako udalak jo eta ke ekin zion moila berriak eraikitzeari. Eraikuntza oso berezia. "Tablestecado" delakoa, alegia. Oraindik gaur ere, bistan daude Kantoipe eta San Pedro Kofradia arteko moilari eusteko hondartzan sartutako zurezko piloteak edo oholtzarrak.

Herritarrak ere hara hurbiltzen ziren ikusmiran. Hain ze, udalak berak agindu zorrotz bat eman behar izan zuen "... *que no se admitiera en el paraje del arenal ninguna persona que no sea de la confianza y agrado del Ayuntamiento*"⁽¹⁾.

Eragozpenik eta kalteturik ere ez zen falta izan, antza. Esateko, Udalak ez zuen aintzat hartu Juan Aranbarri "pasajeruak" egin zion eskari-idatzia "*referente a que a causa del muelle en construcción ha experimentado perjuicios por el embarazo para el embarque y desembarque de bañistas y atendida esta circunstancia tenga a bien de hacer alguna rebaja de la cantidad que causó dicho remate...*"⁽²⁾.

20. IRUDIA. Ondarroa, 1895. urte aldera.

Bigarren frontoia, 1866-1867 bitartean eraikia, aurrekoaren gainean, irudian nabaritzen den moduan. Beheko arkupetan lokalak egin zituen udalak. Ondarroako "Zabalunea" nabarmentzen zaigu irudi honetan. Aurreko irudi guztietan, Kanttoipetik aurrera (itsasora aldera), hondarra besterik ez zaigu agertu. Irudi honetan, ordea, ibaia bera kanalizatzeko lehen hormak eginak jada, Kanttoipetik aurrera. Gaur egun Gaztedi eta Marina kafetegiak dauden eraikina eraikitzen hasiak jada. Irudiaren eskubira, mojen ortua bezala ezagutu zen eremua, hesiz inguratuta.

Itsasoari irabazitako hareatzak hondakinez eta lurrez betetzeari ekin zitzaion 1889. urtean. Ondarroako udalak, lur-eremu berri hau lursailetan zatitu eta enkantean saltzea erabakia zeukan-eta. 1890-XII-07ko udal bileran, hain zuzen, Eduardo Nafarrate alkatea buru zela, lursail haiek besterenganatzeko prozesuari berehala hasiera ematea erabaki zuen, "... *puesto que la conveniencia pública y el interés de los particulares lo reclamaban, toda vez que habían de construirse de los espresados terrenos fábricas o edificaciones que mejorarían notablemente los intereses generales del municipio*"⁽³⁾. Udalak, jada, enkantera ateratzeko prest zeuzkan 15 lursail. Nori saldu ere bai, beharbada.

Herriko dirudun eta jauntxoek eskuratu zituzten enkante bidez herri-lur preziatu haiek. Jose Letona eta Andres Camposek berenganatu zituzten 1, 2, 3. eta 4. lursailak, 4.203'35 pezeta ordainduz. Lursail hauetan eraiki zen irudian eraikitzen ikusten den etxea (gaur egun Marina eta Gaztedi kafetegiak dauden eraikuntza bera).

Ondarroa herri modernoaren itxura hartzen zihoan. Eraiki berriak jasotzen, harresi zaharrak desagertzen. Hondarrari eta itxasoari tokia lapurtzen, gure herria behar zuen hedadura poliki-poliki gauzatzen ari zen. Gauzak asko aldatu ziren garai hartan.

Herriko fisonomiaz gain, politika egiteko modua ere zeharo aldatuta zegoen foruak galdu zirenetik. "Caciquismo"aren garaia zen, eta liberalak eta kontserbadoreak boterea monopolizaten zuten, gobernuan txandakatuz, eta gainontzekoei inolako aukerarik eman gabe. Hauteskunde-iruzurra nagusitzen zen, botoen erosketa, mehatxuak... 1895. urtea oso nahastua gertatu zen Ondarroan. Martínez Rodas -liberala- oso ondo ikusita zegoen arrantzaleen artean, berak lortu baitzuen Madrilen portuko "muelle desvia olas" egiteko baimena. Bere etsaia politikoa, -Aznar kontserbadorea- maltzurkeriz botoak erosten ibili ondoren, Ondarroako herria beldurtzen saiatu zen, bazekielako Rodasengana joango zirela botoak. Hona hemen Blas Iturrizak, Kofradiako kontadoreak zer idatzi zuen: "*Unidos casi todos los propietarios del pueblo, principiaron a atacar a todos los medios posibles con objeto de disminuir la fuerza de la marinería favorable a Rodas (...) unos principiaron a despedir a los inquilinos de sus casas, otros obligarles al pago de las rentas que eran en deber, (...) además de eso, llegaron una porción de maquetos de Somorrostro con objeto de poner miedo a la gente marinera(...) habiendo llevado toda clase de atropellos en los demas pueblos del distrito de Marquina, los partidarios de Aznar habiendo hasta muerte hecho con disparo de revolver en Echano por los maquetos...*"⁽⁴⁾.


(1) OUOBAL, 1891-IV-06.

(2) OUOBAL, 1889-X-06.

(3) OUOBAL, 1890-XII-07.

(4) ITURRIZA, Blas: Op. cit., 205-206 orr.





ONDARROAKO LEHEN ZABALDURA (eta 2)

21. IRUDIA, Ondarroa XX. mende hasieran. 1905. urte aldera.

Marea behean. Ikuspegi orokorra, Ondarroako lehen zabaldura - "Ensanche"- nabarmentzen da. Kanttoipetik aurrera, gaur egun "Kafeko Atze"ra ematen duten etxebizitzak eraikita agertzen dira. Baita "Plai Txiki" a sortarazi zuen moila. San Pedro Kofradiako etxeak eta hondartzarako burdinazko zubi birakaria - "Plaiko Zubixe"- oraindik eraiki gabe. Ibaian, ohizko traineru, belontzi eta balandrez gain, baporontziak agertzen dira lehen aldiz. Baporontzien lehen aipamena 1885. urtekoa da, "Tuton" eta "Isabelita" baporontziek Santa Klara Kofradiaren lonjan eginiko salmenta bat zela eta. Bi baporontzi hauek kanpokoak ziren, eta badirudi 1903rarte ez zela Ondarroan bertokoen arrantza baporontzirik sartu⁽¹⁾. Ondarroa 1984 urtekarian, ordea, "Lenengo bapora Ondarroan 1893. urtean sartu zan arrantzarako" adierazten da⁽²⁾.

Ondarroko udala bera bere lur eremuak saltzen etxebizitzak egiteko? Ulergaitza egiten zaigu gaur eguneko ondarrutarroi; are gehiago, gaur egun gure herriko udala, etxebizitza sozialak egiteko, lurrak erosten ikusten dugunean. Baina XIX. mendearen amaieran, beste egoera bat bizi zen Ondarroa aldean.

Etxebizitza berriak egitea baino premia larriagorik bazegoen. Ur eskasia, besteak beste. Oraindik ez zen ezagutzen ur korronea etxebizitzetan. Eta kaleetan jarritako txurru banakakoetan ere ur arazo larriak zeuden. 1899ko azaroaren 5ean, besteak beste, udala bera hiru aldiz pregoia jo beharrean aurkitu zen herritarrek ohartarazteko "San Pedro txurru" zein "San Juan txurru" iturrietan ura hartzeko ezin zutela balderik erabili, pitxerrak baizik.

Bestalde, itsasadarrean itsasoari kendutako lursail haiek saldu arren, udaleko dirukutxa bera ere ez zegoen, antza, batere indartsu, ezinezkoa baitzen ur horniketaren arazori kolpe egitea "*por ser imposible dada la situación del erario*", udalak berak aitortzen zenez⁽³⁾.

Hori bai, funtsezko konponketarik ezin bazen lortu, gutxienez herritarrei erosotasun gehixeago eskaintzen saiatu zen. 1899. urtean bertan, iturri berria jarri zuen Kale Handiaren erdi aldera, hemengo biztanleak beste kaleetara ur-bila joan behar izaten zuten eta, "... *teniendo que pasar muchísimas escaleras con notable detrimento de su salud y de sus intereses*"⁽⁴⁾. Geroxeago, beste bat ere jarri zuten kale berean, "... *contigua a la casa de Jesus Aranzamendi que hace canton con la Ribera*"⁽⁵⁾. Iturriak ugaltu zituzten, beraz. Hori bai. Baina ura non?.

Halako batean, Ondarroako udalak berak, Jose Urkizu Unanue alkatearen ardurapean, zirt edo zart egin zuen. Urak herrira ekarteko proiektua aspaldiz egina zeukan Juan Egidazu injineruak. Baina non ote zegoen egitasmo hura? Hor nonbait, udaletxeko baztaren baten gordeta ... Edo galduta. Kasua da udalak berak ere 25 pezetako eskupekoa luzatu ziola Peña udal langileari "... *por los servicios que prestó en la busca del expediente de aguas*"⁽⁶⁾. Eta alkateak berak Bilbon aurkeztu zuen txosten osoa 1900ko otsailean.

Ur horniketa egitasmoaren aurrekontua 150.000 pezetakoa izanik, eta udalak berak ez zeukanez dirutza horri erantzuneko behar adina diru-sarrerarik, 60.000 pezeta lortzeko herritarrei herri-mailegua edo prestamena eskatzea erabaki zuen. 1900eko abuztuan iragarri ziren herritarrei, eta 1901. urtearen hasierarako behar baino bi bidar gehiago diru bilduta zeukan udalak.

Diru arazoak bideratu arren, herritarrek hainbeste urtetan amestutako urak, hala ere, ez ziren berehala iritsi Ondarroako kaleetara. Tirabira eta atzerapen ugari ere gertatu zen 1901. urtean. 1902ko otsailaren 16an, hala ere, enkantera atera ziren ur-biltegi berritik urak kaleetara banatzeko lanak. Domingo Ituarte herritarrek bere gain hartu zuen ardura hori, 5.799 pezetatan. Eta 1902. urte berean, herritarrek pozez agurtu zuten kaleetan jarritako 14 iturri eta urguneak ura dariola ikusi zuten une gogoangarria.

Azalpen hauekin agian ulergarriago egingo zaigu garai hartako udalaren jarrera. Herritarren ur egarria asetu ezinik zebiltzan une gogor haietan, nola arduratuko ziren, bada, herritarrentzat etxebizitzak egiteaz?

(1) IRUSTA, A.B.: "Evolución de embarcaciones pesqueras en nuestro tiempo", *Ondarroa* 1986, 4. or.

(2) "Zer dakizu Ondarroari buruz?", *Ondarroa* 1984, 68. or.

(3) OUOBAL, 1899-XI-5.

(4) OUOBAL, 1894-1903, 279. or.

(5) OUOBAL, 1894-1903, 279. or.

(6) OUOBAL, 1874-1903, 327. or.





ONDARROAKO LAMERA

Itsasoari kendutako hareatza haiek etxebizitzak eraikitzeko lur-eremu bihurtzeko buruhauste ugari ekarri zion Ondarroako udalari. 1895. urtean, adibidez, herritar batek 1000 pezetako eskupekoa eman zion udalari, eta honek erabaki zuen "... *destinarlo al relleno de la manzana A del ensanche, que está siendo depósito de toda clase de materias y cuyo relleno lo piden los vecinos y lo exigen de consumo la higiene y el ornato público, conforme eran los deseos del donante*". ⁽¹⁾ "Manzana A" hori gaur eguneko Lamera inguruari dagokio.

1899. urtean gogotsu ekin zitzaion Kanttoipe eta Lamera aldeak hondarrez beteteko lanari. Zortzi gabarra aritu ziren hondar garraioan. Eta hainbat herritar pioitza lanetan. Lan hauetan gehien nabarmendu zirenak emakumeak izan ziren, "peona" izenez ezagutzen zirelarik. San Pedro egunean, Ondarroan jai handia izan arren, 66 emakume aritu ziren lanean. Uztailaren azken astean, lanak bizkortu egin ziren. Uztailaren 21ean eta 22an 66 emakume bildu ziren Artibai ibaian, 76, 24an eta 95, 26an eta 27an. Sei erreal (1'50 pezeta) ordaindu zioten eguneko emakume bakoitzari. Soldata hobia jaso zuten, ordea, pioitza lanean aritu ziren 16 gizonezkoek, eguneko 3 pezeta ordaindu baitzitzaien hauei. Eta launa pezeta egunean bi hargini ⁽²⁾.

22. IRUDIA. Ondarroa, XX. mendearen hasieran. 1908. urte aldera.

Ikuspegi orokorra. Marea goian. Andra Mari eliza, frontoi aldera bere aterpe eta guzti. Azken aldi honetan eginiko barritzatze lanen ondoren agertzen zaigun moduan. Hirugarren frontoia -gaur egungoa-, 1908. urtean inaguratu zen. Ondarroako zabaldua ere bideratuta agertzen zaigu irudi honetan. Baina berritasun aipagarri batekin. Ondarroako herriak bere historian eduki duen lehen berdegunea agertzen zaigu bertan. Ondarroako Lamera, hain zuzen ere.

Zer zela-eta presa hauek? Zer gertatzen ote zen, hainbeste denboran bertan behera utzitako betelan haiek hain presaka egiteko? Ondarroako Udalak Madrileko Gobernuari itsasadarreko hondartzak lehortzeko baimena eskatu zionean 1885. urtean, etxebizitzak besterik ez zeuzkan buruan. Honela adierazten digu garai hartan prestatutako planoak. Hamalau urte geroago, ostera, herriak bereganatu zituen lursail haietatik erdikoena, -garestiena, beharbada, saltzeko orduan-, herriaren zerbitzurako gorde behar zela otu zitzaion norbaiti. Eta udalak berak herriarentzat berdegunea egitea erabaki zuen. Dirua hain beharrezko izan arren, zer balio ote zezakeen herritarren bizimodu eroso eta atseginak?

1899. urteko Andra Mari jaietarako landatu ziren beharbada lehen zuhaitzak Ondarroako Lamera bilakatu zaigun gunean. Kasua da, Lamerako zuhaitzak zaindu beharraz eta beste zuhaitz ilada bat gehitzeko gogoia adierazi zuela Ondarroako udalak berak 1900eko azaroaren 18an ⁽³⁾. Udal bileran esaniko hitz haiek ez zituen haizeak eraman. Hitzekoa gure udala. 14 platano landatu zituen udalak Lameran 1901eko urtarrilean ⁽⁴⁾. Eta hiru arkazi "Lekeitiorako bidekurutzean (Gaur egun Gudarien oroitarria dagoen tokian?). 1902ko urtarrilean ere beste 5 gaztainondo sartu zituen Lameran bertan, eta 27 platanondo Lekeitiorako errepidearen alboan ⁽⁵⁾. Eta, deiturak besterik pentsarazi dezakeen arren, badi-rudi Lameran -Alamedan- burzuntzik -alamorik- ez dela inoiz landatu.

(1) OUOBAL, 1895-VII-07.

(2) ZUBIKARAI, Augustin: *Ondarroa 1982*, 46-47 orr.

(3) OUOBAL, (1984-1903), 383. or.

(4) OUOBAL, (1984-1903), 397. or.

(5) OUOBAL, (1984-1903), 461. or.





ONDARROAKO ARRANTZALEEN KOFRADIA

23. IRUDIA. Ondarroa 1918 urte aldera.

Ondarroako Zabalunearen ikuspegi orokorra, barrenean "La Bahía" ostatua (1904. urtean eraikia) agertzen delarik. Artibai hibaiaren ezker aldean erabat kanalizatuta. Lehen "Ensanche" a egiteko moilak ("La Bahía" ostatura arte), "Puntako Atxa" delako itsasadarreko haitzak arte luzatuta agertzen zaizkigu. 1892-1898 bitartean burututako lanak, Juan Egidazu ingeniariak eginiko proiektuaren arabera. Lekeitioko errepedearen alboan "Monikaneko" txalata. Herriaren zabalkundea Artibai hibaiaren eskumaldera, Berriatuko lurraldeetan barrena. Ohiko astilleruez gain, arrain kontserbategien lehen eraikuntzak. Ibaian zehar arrantzaleen traineru, belontzi eta baporontziak. Kanttoipeko tingloiarren alboan, garai hartan herriko merkataritza bideratzen zuten balandrak. Garai hartan balandra bidez egiten zen kabotajeko itsas merkataritza. Ondarroako bi kofradiak. Zubi Zaharraren alboan, betiko Santa Klara delakoaren egoitza. Egoitza zaharra, jakina. Orain bertan dagoena, barriztatzen ari direna, 1918-1919. urtean eraiki zena. Bestea, San Pedro delakoaren egoitza, Artibai ibaiaren alboan, Kanttoipekiko itsasorantz.

Vicarioren ustez Ondarroako arrantzaleen kofradiaren antzinatasunaren aztarnarik zaharrena 1353koa da, kostaldeko beste lau hiribildurekin batera, Baiona eta Biarritzeko ahaldukin egin zuen hitzarmenean parte hartzen ikusten dugulako Ondarroako udala. Erkorekaren ustez, ordea, hitzarmen hori Ondarroako udalak sinatu zuen, ez arrantzaleen kofradiak. Beraz ezinezkoa da XIV. mendean ondarrutarrek beren kofradia zeukatela ziurtatzea. 1586an, Lekeitioko arrantzaleekin sinatutako beste hitzarmen batean, lekeitiarrak bertako kofradiaren inguruan bilduta agertzen baziren ere, ondarrutarrek "mareantes pescadores" bezela agertzen dira ⁽¹⁾. 1593ko beste agiri batean, ordea, Ondarroako arrantzaleek zera zioten: "... en más de treinta años ha usado y usa tener oficio de mayordomo de la cofradía de los pescadores de dicha villa..." ⁽²⁾, beraz badirudi gutxienez 1563rako Kofradia jada eratuta zegoela, eta zentzu horretan ez da ulertzen 1586an "simples mareantes pescadores" bezala agertu izana. Rubio Perezen ustez "... la cofradía se gestó mediante la transformación de una entidad de fines píos y protectores que se fundaría hacia el siglo XIV" ⁽³⁾, gordetzen den arautegi zaharrena 1593. urtekoa bada ere. Arautegi horrek zera zioen Kofradiari buruz "... que viene de ynmemorial tiempo hasta agora...", eta azken leiroaldian hasieran "E tanto dixerón que rebocarian y rebocaron e davan e dieron por ninguno e de ningun valor y efecto todo lo contenido e easentado en qualesquiera escriptos autos (...) los quales davan e dieron por rotos e cancelados" ⁽⁴⁾. Beraz, 1593ko Araudiaren aurretik bazegoen besterik.

1593ko Araudi honetan Kofradiaren helburuak aipatzen eta zehazten ziren, hots, bazkideei erlijio eta elkarlaguntza zerbitzuak eskaintzea, harreman laboralak bideratzea, arrantza arazoak konpontzea... Baina, urteak aurrera egin ahala, arrantza bera arautzea, eta arrantzuaren salmenta kontrolatzea bilakatu ziren Kofradiako eginbehar eta ardua nagusia. Zeregin horretarako maiordomo bi izendatzen zituzten urteoro, 1638tik aurrera bakar bat

izendatzea erabaki bazuten ere. Hautaketa hau martxoaren 25ean burutzen zen ⁽⁵⁾ (ez San Pedro egunean), eta Santa Klara Kofradiaren batzarrak herriko Ospitalean burutzen ziren, ermita bera urrutiegi zegoelako ⁽⁶⁾.

XIX. mendeko liburuetan (aurrekoak desagertuta daude zoritxarrez) maiz aipatzen dira "seineru", "faroleru", "bandereru" ... eta antzeko beste pertsonaia. Arras ezagunak garai hartako ondarrutar arrantzaleentzat, berauen agindu eta ardurapean itsasoratzen baitziren arrantzara.

Arrantzaleen arteko elkartasunaren garai bateko ezaugarri dira, besteak beste, "diru partiu" delakoak. Arrantzak behera egiten zuenean, kofradia bera arduratzen zen diru bat aurreratzen bazkideei. 1847-48. urtean, 7 "diru partiu" egin zituen kofradiak. Bost aldiz, 1862-63. urtean. Eta sei, 1864-65an ⁽⁷⁾. Kofradiak berak dirutza hau eskuratzeko, batzuen eta besten prestamoak eskatu beharrean aurkitzen zen. Erreditu bat ordainduz, jakina. Mailegu emaileen artean denetariokoak aurkitzen ditugu: herriko jauntxo eta dirudunak, Elgoibarko komentu bateko serorak, karabineroen kabo bat bera ere bai...

Herriko arrantzale guztiak biltzen ziren Santa Klara kofradian, eta elkartearen funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea zuten, teoriz behintzat. Urteroko Batzar Nagusirako deia pregoi bidez egiten zen garai batean. Praktikan, ordea, Santa Klara Kofradiaren zuzendaritza batzordea bera ontzi jabe eta patrioiek osatu ohi zuten mendez mende. Eta tostartekoi ere atek ireki zitzaizkienean, ontzi jabeek euren eskuetan mantendu zuten aginpidea. Adibidez, 1928-XI-2an eginiko Batzar Nagusian hautatutako Zuzendaritza Batzordea honela osatu zen: Lehendakaria bera eta beste 10 kide baporontzi eta motorontzi jabeak, beste 10 kide baporontzi eta motorontzi patrioak, lehendakari ordea eta beste zortzi lagun tostartekoak ⁽⁸⁾.





ONDARROAKO ARRANTZALEEN KOFRADIA

Egoera hau 1931. urtean erabat irauli zen. Urte honetako Batzar Nagusiak, aurretik zuzendaritza batzordea osotzen zuten kide guztiak berhautatuz gainera, "Tostartekoen Elkarteak" aurkeztutako hamabi tostartekoak ere hautatu zituen. ⁽⁹⁾. Are, hurrengo urtean, Pedro Larrañaga, tostartekoa, hautatu zuten Santa Klara kofradiako lehendakari, eta postu honetan iraun zuen 1936ko gerran kendu zutenerarte.

Dudarik gabe, arrantzaleen kofradia honek izugarrizko eragina izan zuen Ondarroako herriaren garapenean. Beti ere herriko udal agintariekin harreman estuan, nahiz eta zenbait kasutan eztabaidak eta haserreak ere sortu aginte bion artean.

1909. urtean, zatiketa mingarri bat gertatu zen Santa Klara kofradian, ontzizabe eta arrantzale talde batek beste kofradia bat sortu baitzuen: San Pedro, kofradia, alegia. San Pedro Kofradiak bere salmenta tokia eta egoitza propioak eraiki zituen 1919. urtean. Irudian agertzen zaiguna, Kanttoipeko biurgunetik gertu. Zatiketa honen arrazoien artean Santa Klara Kofradiako Zuzendaritza Batzordearen eta botikari baten arteko liskarrak eta desadostasunak aipatu arren, inola ezin uka jarrera politiko biziki kontrajarriak ere bazeudela barrenean. Halaber, ontzi jabe Espainia zaleak biltzen ziren gehien bat San Pedro kofradian. Santa Klaran, ostera, abertzaleak.

Kofradia bi hauen ahal eta indar ekonomikoaz jabetzeko, jakingarriak 1924. urteko datu hauek: Santa Klara kofradiak 560 bazkide zituen, eta urte horretan 2.717.704 kilo arrain arrantzatu, eta 1.567.315 pezetetan saldu zuten. San Pedro kofradian, ostera, 390 bazkide, eta 1.507.930 kilo arrain arrantzatu, eta 796.000 pezetetan saldu ⁽¹⁰⁾. Banaketa hura, 1926ko azaroaren 11an amaitu zen, bi kofradiek sinatu zuten agiri baten bidez. Eta 1927. urtearen hasieratik Ondarroako arrantzale guztiak ohiko Santa Klara Kofradian bildu ziren. Berriz biltze honetan Aurrera Klubak eginiko lana aipatu behar da, 1925. eta 1926. urteetako estropadetarako bi kofradietako arrantzaleekin traineru bakarra ateratzeko egin zituen ahaleginek, hauen arteko harremana sendotzen lagundu zutelako.

-
- (1) ERKOREKA, Josu: "Las cofradías de pescadores. Casos concretos y curiosos", *Ondarroa* 1992, 4-5 orr.
 - (2) ERKOREKA, Josu: "Ondarroako Itsas-Kofradiari buruzko Kondaira lorratzak", *Ondarroa* 1991, 24. or.
 - (3) PEREZ RUBIO, L.: *Op. cit.*, 45 or.
 - (4) "Ordenanzas de la Cofradía de 1593", *Ondarroa* 1988, 23. or.
 - (5) ERKOREKA, Josu: "Las cofradías de pescadores. Casos concretos y curiosos", *Ondarroa* 1992, 12 or.
 - (6) ZUBIKARAI, Augustin: "Cuatro Cofradías de pescadores hermanas", *Ondarroa* 1996, 79. or.
 - (7) *Santa Klara kofradiako Kontu Liburua (1844-1874)*, 38., 222. eta 248. orr.
 - (8) *Santa Klara kofradiako Agiri Liburua (1927-1940)*, 66. or.
 - (9) *Santa Klara kofradiako Agiri Liburua (1927-1940)*, 146. or.
 - (10) *Ondarroa* 1984, 31. or.



“PLAIKO ZUBIA”, (1927-V-1)

Hondartzara doan Zaldain Birakaria 1927ko maiatzaren 1.ean inauguratu bazen ere, zubi hau eraikitzeke jestioak 1925. urtean hasi ziren, Primo de Riveraren diktaduraren garaian, hain zuzen ere. Urte horretan, Celedonio Arriola alkateak hondartzara igarotzeko zaldaina eraikitzeke eskaera zuzendu zion Bizkaiko Aldundiari. Alkateak hiru arrazoi nagusi deblauki adierazi zizkion herrialde erakundeari eskaera argudiatzeko: herrian zegoen udatiarren kolonia nabarmena; itsasadarra zeharkatzeko potina garestiegia zelako herritar apalentsat; eta, Arrigorriko bihurgunetik, bide-zidor malkartsu batetik jaitsi behar izaten zutela hondartzara ailegatzeko ⁽¹⁾.

Itsasadarra zeharkatzeko erabiltzen zen potinari buruz, hara zer dioskun Jose Mari Etxaburuk: “*Orduan ez egoan oraindik ondartzarako zubirik eta ibaia igarotzeko itxasontzitzu zuri bat egoten zan, azpi zabala, angulatarako-ta izaten diran orretarikoa (...) Txoritxikia izaten zan aruntz onuntza. Iñoiz jendea ondartzan zala euria asita danak alik ariñen errira etorri naita ontzia geiegi bete be bai*” ⁽²⁾. Potin horren arduradunari “pasajeru”a deiten zitzaion, eta urtetan zehar Gillermo Amutxastegi zeztalari famatuaren aita izan zen kargu hori bete izan zuena.

Hondartzara ailegatzeko ere, “... bira andia egiñaz Arrigorri'tik joaten giñan. Oraingo eskillarak edo mailladia orduan be bazan, naita naikoa ondatua, baiña beruntzkoa, geienetan, mailladia alboan laga ta Arrigorri'ko musturretik bera zuzenean egiten genduan txirristadaka edo al zan moduan” ⁽³⁾.

Gauza da, Bizkaiko Aldundiak Ondarroako alkatearen eskakizuna onartu eta zubia egiteko lanak martxan hasi zirela. Sasoi hartan Ondarroako portua oraindik ibaian gora kokatzen zen, hau da, zubia eraiki behar zen lekua baino gorago. Eta txalupei igarobidea libre uzteko, zubi hau zabaltzeko modukoa izan behar zela erabaki zen. Ikusi dugun moduan, egurrezko Zubi Zaharra egin zutenean ere arazo berdinari aurre egin behar izan zioten, eta orduan igotzen eta jaisten zen zubi bat egitea izan bazen konponbidea, oraingo-

an bira eginez zabaltzen zen zaldaina proiektatu zuen Jose Gonzalez de Langarica injinieruak.

Zubi hau bi fasetan egin zen: lehenengo zubia bera gainean edukiko zuten zutabe edo oinarriak egin ziren; eta gero etorri zen “*abe bakoxak gaiñean erdi-erdian gora begira euken ardatz musturrean zubi alderdiak sartu edo ipinteko guna. A ikustera jende asko urreratu zana esan bearrik ez da. Gabarra batek artu ta sartu bear zituan; beraz maria goian egoala egiteko kontua zan eta arratsaldeko seirak-zazpirak inguruak egokitu zan mare puntea (...) Zubi alderdi batek, gabarreak lotu ta jaso ebanean, birea egin eban, Escuela de Pesca'ko ikustoki edo miradorari ikutu eutsan eta ainbat leiar ta abar ausi zituan*”. Zera da, gaur egun Idoia taberna eta estankuaren gainean dagoen begiratokia.

Asko kostata, baina badirudi pare bat egunetan lortu zutela burdinezko egitura biak zutabe gaineetan ezartzea. Zubiaren inaugurazioa 1927ko maiatzaren 1.ean ospatu zen, eta ekitaldi hartarako Esteban Bilbao -Bizkaiko Aldundiko lehendakaria- etorri zen Ondarroara, lan hauek aldundiak berak ordaindu zituen eta. Aipatu beharra dago, zubia bukatu baino lehentxoago dirua bukatu egin zitzaizela, eta Ondarroako udalak berak lortu behar izan zuela mailegu bat Bizkaiko Aurrezki Kutxatik. Mailegu honen korrituak ordaintzea Ondarroako udalaren esku gelditu zen, eta dirua eskuratzeko, zubia igarotzen zutenei txoritxiki bat kobratzeko baimena lortu zuela Aldundiarengandik.

Hondartzako zubiak izen ezberdinak izan ditu, batzuk ofizialak, beste batzuk herri-tarrek jarritakoak. Izen bakoitzak sasoi bakoitzeko giroaren berri ematen digu. Zubia inauguratu zutenean (1927) "XIIIg'en Albontsa Zaldaña" ("Pasarela de Alfonso XIII") jarri zioten. Gerra zibila eta gero, frankisten antimonarkismoa zela-eta "Puente de Calvo Sotelo" deitura jarri zioten. Herritar gehienek "Plaiiko zubixe" deitzen diogu, igarotzeko ordaindu behar zenean batzuk "Txoi-txikixan zubixe" deitzen bazioten ere. Bilbotik uda pasatzera etortzen zirenek berriz "puente de la perra chica". 2002an, zubi honen inaugurazioaren 75.

“PLAIKO ZUBIA”, (1927-V-1)

24. IRUDIA. Ondarroa 1929. urte aldera.

Musika Plazako Kioskoa eginda. Baporontzien presentzia areagotu egin da. “Plaiiko Zubia” - Zaldain Birakaria- bi urte lehenago inauguratu zen. Santa Klara Kofradiaren egoitza -”Kofradi Zaharra”-bukatuta. San Pedro Kofradiako 3. eta 4. solairuak altxatu gabe.

urteurrena dela-eta ospakizunak burutu dira, eta “Plaiiko Zubia” izena berreskuratu da.

Zubi honen berezitasunei buruz ere badago zer esana. “*Zerbait bakarra badugu Ondarroan gure injinerutza zibileko ondare historikoan zubi birakari hau*“ (4)dela, dio Salbador Aristondok. Eta izan ere, era honetako zubi birakariak lau baino ez dira gelditzen mundu zabalean: bata Egipton, bestea Ameriketako Estatu Batuetan, hirugarrena Italian, eta laugarrena Ondarroan. Sasoi batean Bilbon oso antzerako zubi bat egon zen -gerra zibilean bota zutena- eta Ondarroako zubi birakaria Bilbotik ekarritakoa dela pentsatu izan da

luzaroan. Baina Aristondok argi eta garbi utzi du, Ondarroako zubi birakaria ez dela Bilbokoa, bertorako apropos egina baizik. Hau jakinda, eta hondartzako zubia herri honentzat garai baten ezaugarri eta lekuko dela kontutan hartuta, Ondarroako Historia Zaleok eskakizun bat jarri dugu abian: Hondartzako Zaldain Birakaria Euskal Herriko Ondare Historiko izendatzearena.

(1) ARISTONDO, Salbador: “Izaera bereziko zubi birakaria”, *Ondarroa 2002*, 44-45. orr.

(2) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa 1986*, 8. or.

(3) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa 1986*, 8. or.

(4) ARISTONDO, Salbador: “Izaera bereziko zubi birakaria”, *Ondarroa 2002*, 40. or.





ARRAIN KONTSERBA LANTEGIAK ONDARROAN

Aipatu dugun bezala 23. irudiaren azalpenean, arrantzuaren salmenta bilakatu zen Santa Klara kofradiaren arazorik larrienetarikoa eta, era berean, bere indarraren ardatza.

Arrantzaleek zekarten arrantzia Kofradiako lonjan saldu behar izaten zen nahitaez. Agindu hau ez betetzeagatik zigorrak ere ezarten zitzaizen ontzi jabeei ⁽¹⁾.

Arrantzu guztia Kofradiako lonjan saldu beharrak buruhauste ugari sortzen zien Santa Klarako arduradunei. 1860-70 hamarkadan, adibidez, urtero, eta urtean hainbat aldiz, mandatariak bialtzen zituzten Ondarroatik albo herrietara, arraina garraiatzeko mandazain bila.

Hala ere, arrain guztia freskora saldu ezin zenez, arraina bera frigitzera behartuta aurkitu ziren. Horrela eraiki zuen Santa Klara Kofradiak bere "Eskabetxeria" 1750. urte alde-
ra. Arraina prestatzeko Ondarroan zegoen lantegi bakarra. Urte batzutan Kofradiak berak zuzenean administratzen zuen; bestetan, bere ustiaketa partikularren eskuetan utziz, diru baten truke, jakina. Horrela iraun zuen Kofradiako eskabetxetegiak 1897. urtera arte.

Monopolio hura, lehendik ere arrakalatuta bazegoenez, erabat ezereztu zen I. Karlistaldiaren ondoren, liberalek beraien legeak ezarri zituztenean. Madrilek ezarritako lege berriek, halaber, ateak ireki baitzizkion merkatu libreari. Testuinguru ekonomiko berri honetan, 1845. urtean bigarren eskabetxetegi bat sortu zen Ondarroan; baita laster desagertu ere.

1868. urtean, bi eskabetxetegi berri ireki ziren. Pedro Jose Zelaiak eraiki zuen lehe-
na, Artibai hibaiaren eskuma aldean, Zubi Barriaren alboan ("Mari Tobaneku" fabrika ize-
naz ezaguna azken aldian, eta sahiesbidea egiteko desagertarazia). Bestea, Eduardo Nafarratek eraiki zuen, Markinarako errepide alboan. Harrigarria bada ere, Pedro Jose Zelaiak ireki zuen lantegi berriak Santa Klara kofradiaren babes eta laguntza osoa lortu

25. IRUDIA. Ondarroa 1948. urte aldera .

Zubi Zaharra eta Zubi Barriaren arteko eskuin aldeko ikuspegia. Martinez de Luco kontserbategia bera aurrez aurre. Honen alboan Carolinaren etxeak. XX. mendearen lehen urteetan Ondarroan hedatu zen etxegintza motaren lekuko aparta.

zuen, Kofradiak berak eskatu baitzion udalari, Kofradiako arrain ikuztegirako soberan zeukan ura lantegi berriari eman ziezaiola.

Hara nola arrazoitzen zuten eskari hura Kofradiako ordezkariak:

"Además no se ocultará a V. S. las grandes ventajas que reporta a la industria pesquera (única en esta población y de la que se sostiene la mayoría, si no el todo de sus habitantes) el establecimiento de una escabechería" ⁽²⁾.

Goiko lerro horiek, I. Karlistaldiaren ostean arrantzak izan zuen gorakadari ezker, arrantzaleek erruz zekarten arraina merkaturatzeak sortzen zituen arazo eta ardua larriak islatzen dizkigute. Zelaiaren ondoren beste asko etorri ziren. XIX. gizaldian bertan gehitu ziren beste eskabetxetegi hauek: Saturnino Martinez de Lucorena (irudian agertzen zaiguna), Antonio Aretxagarena, Migel Urrestirena, Bernardo Ortiz de Zaraterena. Azkena, 1896. urtean, Jose Antonio Agirrearena. Garai berean, frantses merkataria batzuk Kofradiako eskabetxetegi errentan hartu zuten, eta ohiko eskabetxea alboratuz, arraina latetan gertutzeari ekin zioten, herriko eskabetxetegiari arraina gertuteko era berriak erakutsiz.

XIX-XX. bi mende horien artean beste gertaera garrantzitsu bat eman zen Ondarroako kontserbagintza arloan. Garai honetan iritsi ziren Ondarroara antxoak salazioan gertuten irakatsi ziguten italiarrak. Italiarrak barik siziliarrak, esango genuke. Siziliarrak izan ziren, hain zuen, Kantauri itsasoko antxoa aintzat hartzen erakutsi zigutenak. "El "Boom" de los salazoneros italianos" deitu izan dio norbaitek. 1915. urtean Ondarroan zeuden 25 kontserbategietatik 13 italiarrenak izan ziren. Eta 1921. urtean Ondarroan arraina gertuten ari ziren 40 lantegietatik 12 italiarrenak. Garai honetan iritsi ziren gure artera Scola, Busalacchi, Gussimano, Billante, Dentici, Marino, eta beste zenbait deitura.

(1) Santa Klara Kofradiako Kontu Liburua (1844-1874), 1868-1869ko dirukontuak.

(2) Arrain kontserba lantegietaz hemen eman diren datuak eta beste zenbait jakingarri aurki dezakezu: ZUBIKARAI, Augustin: *Ondarroa, Kondaira 1900-arte*, 527-546 orr.





ONDARROAKO FRONTOIA ETA MUSIKA PLAZA

Irudi honetan oso ondo nabaritzen da frontoiko jarlekuak egin aurretik plazak nolako hedadura zuen. Nahiko luzea zen, hasieran hamaika kuadro eta erdikoa -berrogetasei metroko luzera-. Udala eraikitzean hiru kuadro eta erdi moztu zioten, eta gaur egungo frontoiak zortzi kuadro eta erdi dauzka, lau metrokoak bakoitza. Frontoi honek frontisa mendebalean du eta atzea ekialdean; eguzkiaren argia ongi aprobetxatzeko pentsatua, eraikin honen xarma ukalezina da. Desabantaila txiki bat ere badauka: arratsaldeko eguzkiak, bere ibileran aurretik jotzen duela eta honek arazo txiki batzuk eragiten ditu laurak eta sei-rak bitartean.

1950eko hamarkadan, sarritan jokatzeko tokirik ezin hartuta, zain egon behar izaten zen. Atera kontua, korretan ere eskuz pilotan jokatzen zela, frontoia beti beteta egoten zela. Hemendik pasatu dira marinela, baserritarrak eta arotzak, gazteak eta helduak, trebeak eta baldar xamarak. Jokalariak sarri oin hutsik ibiltzen ziren, abarketak apurtzeko bel-durrez. “Pareteru”ari pilotak alokatu eta eskuak puztu-puztuta amaitzeko prest beti. “Pareterua esaten jakonak lagaten zituan pelotak jokoko onenbesteko baten truke; gauza utsa, txoriandi bat edo bi, izaten zan ordaindu bear zana jokoak irauan ebanaren arabera. Galtzailleak ordaindu bear ko eban kontixu ta uste dot jokatzen ebana orixe izango zala, nok ordaindu pareteruari”⁽¹⁾. Jolastu ondoren, ohitura zen eskuak lurrian ipini eta beste batek zapaltzea, bere gorputzaren pisu guztia esku gainean jarriz, eskuaren puztura jeisteko helburuaz.

Profesionalekin partidu onak antolatzen zirenean auzoetako herritarrak hurbiltzen ziren. Zaletasun handia garai hartakoa. “Pelota tokia itxi egiten zan olez erriko jaietan eta jakiña, ordaindu egin bear an sartu nai ebanak. Baiña plazatik Ipar-kale ’raiñoko aldatzeko alderdia ez eben itxiten eta Korrete be orduan itxi barik egoten zan (...) Aremaio ’neko ardandegiko kanpoan aldatzen agintzen eban erako oin desbardiñeko aulki luze bat egoten

26. IRUDIA. Ondarroa 1950. urte aldera.

Irudian, hirugarren frontoia irudian, gaur egun ezagutzen dugun frontoia, bizirik dauden pilotazaleen eskola. Musika Plaza ederra, kioskorik gabe, ordurako eraikita bazegoen ere. Futbolak eta autobusak, eta autobusak garaiak aldatzen ari zirelaren seinale argia. Ondarroa modernitatean sartzen ari zen.

zan (...) Ta jaietako pelotako jokoak ziranean, an aurean ezer ordaindu barik ikusten egotzen atzera eroan aulkia ta gaiñean zutiñik jarriaz jokoak ilusten eben ardandegiko bost edo sei bezerok. Ta baten, sekula ez dana bein izaten da ta, aulkari, gaiñekoen pixuz oiñak okertu edo apurtuaz, jan joan ziran danak ainkaz gora, ingurukoak barre ta algarako zirela”⁽²⁾.

Pilotan jokatzeko gain, beste erronka batzuek ere hitz egin dezakegu. Garai hartan bazegoen frontoitik botatako harria, Eliza gainera pasatzeko gai zenik. Beste aldeko korretan, hiru lau lagunek, harriak jauzterakoan ibaian uzten zuen arrastoa zaintzen zuten, eliza gainera igaro zelaren seinale.

1960ko hamarkadan, udaletxe berria egin zutenean, frontoian zementozko jarlekuak egin zituzten, eta ezin ukatu bi gauza hauek zabaltasun apur bat lapurtu ez ziotenik. Badirudi hobetu beharrean, kalte egin ziela frontoiari armaila berri hauek: “Jarri-lekuak naikoa luze-zabalera artu arren jende asko artzeko aiñakoa ez zan gelditu; lenengo mailako pelotariak ordaintzeko ainbat diru batzeko, iñundik be ez (...) ¡Alde ederra gure ume denporetatik ona! Orduko Andra Mari jaietako ikuskizunik ederrenak, “pelota partiduak” izaten ziran”⁽³⁾.

Eta ehun urte pasa ondoren, 1908ko frontoia da gaur ezagutzen duguna. Bertan sartzen denak orain ehun urteko frontoia ikusten du. Kantxa barruan ezer ez da aldatu, eta agian frontoi bakarra izango da ehun urtetan aldaketarik jasan ez duena. Baina zorua buztitzen denean erratzak eta zerrautza hartu eta lana egin behar da lehertzeko. Gerra aurretik, partidu garrantzitsuak jokatzeko egunetan, buztita bazegoen, gasolina bota eta sua ematen zioten zoruari, aguro lehertzeko. Zorionez, gaur egun horrelako astakeriarik pentsa ere ezin daiteke egin. Berriki Bizkaiko Foru Aldundiak Frontoi Monumental bezala izendatu du.

(1) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa* 1986, 9 or.

(2) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa* 1986, 9 or.

(3) ETXABURU, Jose Mari: “Gure erriko gauzak”, *Ondarroa* 1986, 9-10 orr.





ONDARROA BERRI BATEN POSTALA

Irudi hauetan nabaritzen zaizkigu azken urte hauetan gure Ondarroa txukuntzeko egin diren aldaketak. Azken mende honetan batez ere arrantza herria izan arren, badirudi Ondarroara ere iritsi zaigula, turismoa Euskadira erakartzeko Euskadi osoan daramaten politikaren eragina.

Baina, ezin dugu ahaztu XIX. mendearen azken aldera, eta XX. ren lehen urteetan Ondarroa ere benetan erakargarria gertatzen zitzaieela orduko turistei. Uda oro, halaber, hainbat udatiarrek bilatzen zuten Ondarroan eta inguruetan euren atsedeen lekua. Aipamen batzuk egingo ditugu hemen.

1898. urtean Ondarroako itsas bazterrek lehen aldiz ezagutu zuen batek, hondartzaren xarmaz liluraturik, antza, hitz hauek idatzita utzi zizkigun: "... bateltxu baten ibai edo itsas-adarra igaro ta an nengoan ondartzan. Onakorik! (esan neban neurekautan hau ikusi nebanean), ez neban uste Ondarroan egon leiteala bustialdiak hartuteko onako lekurik, hain hondartza ta itsasertz laua, leuna, baketsua, ta bildur бага bustialdiak hartutekoa. Ze gauza zoragarria busti-ondoan an etxetxuen ondoan (hondartzan egoten ziren kasetetaz ari da) otzara ganean jarrita, kalara arteko guztia ikusten itsas-haizeak hartuten begira egotea!"⁽¹⁾.

Izan ere, XIX. mendearen azken aldera (eta XX. mendean ere 1940-50 hamarkadara arte), Arrigorriko hondartza udatiarren gune berezia eta bakarra bilakatzen zen. Gaur egun herritar guztiok atsedeen leku dugun hondartzara herritarrik ez zen hurbildu ere egiten. Bainua hartu nahi zuten herritarrek "Txaperoneko" etxeen aurrean zegoen hondartza txiki-ira joan behar izaten zuten. Herriko hondartza deitzen zitzaion deitu ere. Eta asko eta asko, ibaian bertan, Astilleru aurrean, eta Zubi Barria baino zerbait goraxeago zegoen "hondarrean" bustialdia hartzen zuten. Halabeharrez!

Haatik, Ondarroako udalak pozez agurtzen zuen udatiarren presentzia.

Are, udatiarrei zerbitzu egokiak eskaintzen saiatzen zen gogotik udala bera. Eta abegi onez hartzen zituen udatiarrek zuzendutako kexak ere.

Oraindik zubi birakaria eraikitako zegoenez, udatiarrak Arrigorripeko hondartzara eramateko "Pasajeruaren zerbitzua" prestatzen zuen urtero uda garairako. Udalaren aginduz Bittor Urrestiren ontzioletan egin zen batel bat 1884. urtean, 235 pezeta pezeta kostatu zitzaiolarik udalari, "... para pasaje del Arenal a tiempo de baños, con inclusión de la cade-

27. IRUDIA. Ondarroa 1996. urte aldera.

Elizaren barriztapen lanen hasiera nabari da bertan. Desagertu dira jada korreta azpian garai batean arrantzaleentzat egin ziren bodegak. Elizako ormak ere irudi garbia eskaintzen digute. Garai batean Antsozolo ontzioletarako zuhaitz enborrak pilatzeko eta txalupa barriak uretaratzeko erabili ohi ziren itsas bazterrek turismo eta atsedeen txalupen kabi bihurtu zaigu.

na, arpeo, remos y el candado con su llave"⁽²⁾. Eta zerbitzu hori egiteko aukera herritarrei ematen zien, urtero enkantera ateraz. 1901. urtean, esateko, Fermin Urrestik eskuratu zuen pasajeru zerbitzua emateko eskubidea 450 pezeta udalari ordainduz, 10 aldiz puja egin eta gero⁽³⁾. Hondartzara joateko bide eroso bat izan zezaten, udalak berak Arrigorriko eskaile-
rak ere egin zituen 1877. urtean⁽⁴⁾.

• XX. gizaldiaren lehen urteetan, besteak beste, nabarmendu zen udatiarren presentzia Ondarroan. 2001ko irailaren 1.eko bileran alkateak berak adierazten digunez, "*como la colonia forastera que nos visita los veranos va adquiriendo alguna importancia (...) convendrá atender a sus justas quejas*". Kexa eta eskari hau, hain zuzen, "pasajeru" zerbitzua udatiarrei eskaintzen zitzairen tokirako bidearen egoera arrisksuari zegokion. Eta udalak hurrengo udarako bide barria egitea erabaki zuen⁽⁵⁾. Badirudi udatiarren segurtasunak benetan kezkatzen zituela herriko agintariak. Udalak berak uda oro sokak jarri ohi zituen hondartzan. 1901. urtean jarritakoak, esateko, 180'95 pezeta kostatu zitzaion Ondarroako udalari⁽⁶⁾. Baina, egitan, herriko agintariei buruhausterik handiena sortzen zien hondartzako arau zehatz eta gogorrek udatiarrei bete arazteak. Gizonezko eta emakumeak erabat bananduta egon behar baitziren hondartzan. Eta udalak uda oro jarri ohi zuen zaintzailea hondartzan bertan.

• Bestalde, udatiarren inguruan nolabaiteko "industria" nabaritzen da jada Ondarroako hondartzan. Udatiarrentzat kasetak, besteak beste. Hauen inguruan sortutako eztabaida eta izkanbilak islatzen dira 1904-1906. urteetako udal agirietan⁽⁷⁾. Baina egitazko garrantzia izan zuten udatiarrentzat prestatutako ostatuak. Arrigorriko ostatua bera 1870-1880. urteen inguruan eraki zen. Bainuetxe moduan, hain zuzen. Geroago, XIX. gizaldiaren azken aldera Azpilza ostatua. Eta 1904. urtean Hotel de la Bahia delakoa. Eta 1906. urtean ere hondartzaren alboan bainuetxe barria eraikitako proiektua onartu zuen Ondarroako udalak⁽⁸⁾. "Azpilza" eta "Hotel de la Bahia" delakoen argazki esanguratsuak argitaratuta daude "Ondarroa 2001" urtekarian. Garai batetako Ondarroa herri turistikoaren lekuko isilak⁽⁹⁾.

Azkenez, nola aipatu gabe utzi XX. gizaldiaren lehen urteetan udatiarrek eginiko zenbait txalet? Lekeitorako errepidearen alboan, gehien bat. Hauetatik guztietatik Monikaneko txaleta besterik ez zaigu gelditzen. Beste guztiak irentsi ditu XX. gizaldiko industrializazioak. Arrantza herri izateko ondarrutarrok ordaindu dugun bidesaria, alegia.

1) *Euskalzale* euskal aldizkaria, II. urtea, 1898-X-06, 317. or.

(2) ZUBIKARAI, Augustin: "Misceláneas", *Ondarroa 1982*, 47-48 orr.

(3) OUOBAL, 1901-VI-30, (1894-1903), 420 or.

(4) ZUBIKARAI, Augustin: "Misceláneas", *Ondarroa 1982*, 47 or.

(5) OUOBAL, 1901-IX-08, (1894-1903), 434 or.

(6) OUOBAL, 1901-VII-21, (1894-1903), 427 or.

(7) OUOBAL, (1903-1906).

(8) OUOBAL, 1906-VIII-5, (1903-1906), 396 or.

(9) *Ondarroa 2001*, 50-51 orr.



